

# Idazlan akademikoa: aholku metodologikoak<sup>1</sup>

*Juan Bautista Bengoetxea  
Ekai Txapartegi*

Ikasleen gaitasun akademikoa neurtzea da, besteak beste, unibertsitateen eginkizuna. Gaitasun hori neurtzeko, dakigunez, irakasleek hainbat bitarteko erabiltzen dituzte, mintza aurkezpenak, azterketak... , eta ikasleak teknika horiek guztiak menderatu behar ditu. Horien artean aurkitzen da, baita *idazlana* ere, giza eta gizarte-zientzien alorrean bereziki erabiltzen dena. Filosofia akademikoa egin nahi duen edonorentzat, beraz, garrantzi handia du idazlanak behar bezala egiten jakiteak.

Idazlan guztiak, jakina, ez diote kanon berari jarraitzen. Ikasle baten idazlanari, adibidez, ez zaio eskatzen ikertzaile batenari eskatzen zaion zorroztasun, originaltasun edo sakontasuna. Ez litzaioke eskatu behar, behintzat, idazlanen artean badagoelako egon graduazio nabarmen bat.

Hala eta guztiz ere, idazlan akademiko guztiak badute oinarritzko hainbat irizpide komun. Guztiak dira, nolabait esateko, idazlan "akademikoak". Eta, hain zuzen horregatik, akademikoak direlako, guztiak jarraitu behar diote akademian eskatzen diren oinarritzko hainbat irizpideri, oro har, bost multzotan sailka daitezkeenak:

- (a) orokorrak
- (b) bilaketari dagozkionak
- (c) irakurketari dagozkionak
- (d) idazketari dagozkionak
- (e) aurkezpenari dagozkionak

Gida honetan, irizpide horiek aurkezteko bost multzotako sailkapen intuitibo horri jarraitu diogu. Alor bakoitzari dagozkion irizpide edo jarraibide akademiko nagusiak aurkezten dira, beraz, gida honetan.

Idazlanak ondo egiteko komeni da hemen aurkezten diren irizpide guztiei jarraitzea. Horretarako, noski, behin baino gehiagotan irakurri beharko duzu gida hau. Dena dela, gidak, normalki, ez dira hasieratik bukaerara irakurtzen; kontsultarako erabili ohi dira gehiago, batez ere, zalantza konkretuak (informazioa non bilatu, bibliografia nola jarri,

---

1. Metodologiari buruzko atal hau 2003ko uztailan Iruñean egin genuen udako ikastaroaren jarraipena da. Bertan irakasle ginela, beste irakasleen eta ikasleen parte-hartzeari esker, idazlan honetan garatu ditugun puntuak jorratu ahal izan genituen. Eskerrak, beraz, UEUri ikastaro hura antolatzeagatik eta bertan bildutakoei egindako ekarpenengatik. Bestalde, Iñaki Sotoren ekarpena eta Joana Garmendiarena bereziki eskertu nahi ditugu.

etab.) berehala argitzeko. Normalki, beraz, interesatzen zaizun zatia bakarrik irakurriko duzu. Horregatik, kontsulta-irakurketak erraztearren, gida honek ere kontsulta-liburuaren estiloari jarraitzen dio: esaldi laburrak, irizpide orokorrak, aholku praktikoak, adibide errazak, ereduak... , eta, jakina, bilatzen dena azkar aurkitzeko aurkibide zehatza.

Gure ustez, honelako gida metodologiko batekin euskarazko akademiak duen hutsune garrantzitsu bat betetzen ari gara; izan ere, askotan idazlanaren aspektu formalek erabakitzen dute lana nola hartua izango den, begirune gehiagoz ala gutxiagoz, arreta gehiagoz ala gutxiagoz. Alegia, guk nahi edo nahi ez, baliatutako irizpide akademikoen arabera ere ebatzen dira bertan agertzen diren ideia, proposamen edo ekarpenak. Horregatik, aholku erraz eta praktiko horiei jarraitzen zaienean lan akademikoen mailak gora egiten du eta, jakina, jasotako kalifikazioak ere gora egin beharko luke. Hortaz, komeni izaten da haiengandik ahalik eta gertuen ibiltzea.

Bestalde, esan bezala, bereziki filosofiako ikasleei zuzenduta dagoen gida da hau. Idazterakoan ere askotan, testua ez kargatzearren, filosofiako ikasleei ariko bagintzaizkie bezala idatzi dugu. Dena dela, modu orokorrago batean giza eta gizarte-zientzietan lan egin nahi duen edonorentzat (kaletar, irakasle, ikertzaile ...) ere balio dezake. Batez ere planteatzen diren lan egiteko modua eta metodologia nolabait "idealak" direlako. Azken buruan, edozein gai aztertzeko orientabide batzuk eskaintzen ditugu gida honetan: informazioa nola jaso behar den, ideia berriak nola bilatu behar diren, nola irakurri behar den irakurketa eraginkorra izan dadin, oharra eta fitxak nola egin, ideiak nola egituratu, azaldu, aurkeztu... . Horrenbestez, beraz, giza eta gizarte-zientzietan diharduen edonork erabil ditzakeen orientabide orokor eta oinarrikoak dira hemen jarri ditugunak.


Bukatzeko, zailtasunen aurrean azkarregi amore ematen dutenei esan, lan akademiko bat egitea bizikletan ibiltzea modukoa da: hasieran zaila dela dirudi, baina gero nahi gabe ateratzen da. Alegia, idazlanak ondo egiteak jakite edo teknika batean trebatzea suposatzen du, eta teknika hori menderatu arte, jakina, ahalegindu egin behar izaten da. Behin teknika menderatzen denean, alabaina, oharkabean aplikatzen da. Ahaleginak merezi izan duela ohartzen gara. "Idazlanaren teknika" azaltzeko eta hartaz modu errazean jabetzeko idatzi dugu eskuetan duzun gida metodologiko hau.

# I. Idazlan akademikoaren ezaugarri orokorrak

Edozein idazlan egiten hasi aurretik idazlanaren baldintza eta mugapen orokorrak hartu behar dira kontuan, hala nola:

- nori zuzenduta dagoen (irakaslea, irakurle espezializatua...)
- idazlanaren helburua zein den (ikasgai bat gainditzea, ikaskideekin eztabaida sortzea...)
- nolako formatuan aurkeztuko den (aldizkari batean argitaratzea, azterketa baten osagarri izatea...)
- horren hedadura zein izango den (artikulua, tesina...)
- lanaren hedadura eta epeak
- aurreko lanez balia ote daitekeen
- eskura ditugun informazio iturrien identifikazioa (liburutegiak, hemerrotekak, Internet...)
- beste hainbat.

Baldintza edo mugapen horien arabera idazlanaren planteamendu orokorra bata edo bestea izango da. Horregatik, komeni da horiek guztiak aurretik finkatzea.


 *Saia zaituz irakaslearekin ahal den guztia alde aurretik argitzen. Aldizkari baterako artikulua idazten ari bazara, ordea, aldizkari bakoitzak ezartzen dituen arauak errespetatu itzazu. III*

Baldintza edo mugapen horiekin batera, halaber, edozein lan akademikok errespetatu behar dituen irizpide orokorrak ere kontuan hartu behar dira, izan ere, zerk egiten du idazlan bat on? Idazlan batek ona izateko, oro har, zehatza, kritikoa, argudiatua eta zaindua izan behar du. Zehatza eta irizpide horiekin arretatsuago, orduan eta hobeago izango da idazlana. Jarraian banaka azalduko ditugu idazlan akademikoek izan behar dituzten lau ezaugarri orokorrak.

## I. ZEHATZA

Idazlan batek zehatza izan behar du. Alegia, esan nahi dena adierazi behar da, ahalik eta argien. Gaia zehaztea eta hartara mugatzea, beraz, ezinbestekoa da. Horretarako:

- (i) Proposatutako gaitik abiatu eta, ahal den neurrian, hari heldu.

 *Adibidez, gaia "Sokratesen heriotza eta demokrazia" bada, ez zara arduratuko "Platonen formen teoria" bezalako gaietaz, hori ere irakaslearen zerrendan egon arren. III*

(ii) Gai nagusia zehaztu. Horrek, praktikan honakoa esan nahi du:

– Gai orokor bat, edo kontzeptu jakin bat, ondo zedarritu.



*Hautematea* III

– Gaia edo kontzeptu hori helburu zehatz baterantz bideratu.



*Hautematea* → *kulturalki baldintzatuta ote dagoen* III

– Teoria eta adibideak lotu, kasu baten —edo batzuen— azterketarekin.



*Hautematea* → *kulturalki baldintzatuta ote dagoen*

↓  
*Euskal kulturaren bilakaeran koloreen hautematea aldatu ote den* III

(iii) Gaiaren arloko kontzeptuak erabili.

– Arloa finkatzeko begira iezaiozu arretaz gaiaren enuntziatuari.



*Enuntziatua: "Nietzscheren eragina XX. mendeko nazionalsozialismoaren garapenean"*

↓  
*Arlo orokorra: filosofia politikoa.* III

– Kontzeptu zehatzak eta azpiarloak zehazten joan.



*Nietzsche ↔ filosofia ↔ politika ↔ nazismoa* III

(iv) Behin eta berriz itzuli.

Gaia zehazteko joan-etorriko lana egin behar da. Oro har, abiapuntua ideia edo panorama zabalegi bat izan ohi da —horrek gure hasierako ziurtasunik eza adierazten du—. Baina gaiaren inguruan irakurtzen eta sakontzen hasi bezain laster, alea eta lastoa bereizten doaz. Horrela, irakurketak egin bitartean, jatorrizko gaira bueltatzea komeni da, handik eta hemendik hura kimatzeko:

– Hasieran ez dakizu nola bereizi eta identifikatu gai zehatza eta interesgarria.



*XIX. mendeko filosofia politikoaren eta iraultza marxisten arteko loturak mendeberaldean.* III

– Irakurtzen hasi eta gero, zerbait zehatzagorik lor dezakezu.



*Ekonomia politiko marxista, Leninen ikusmoldea eta Errusiako iraultza.* III

– Azkenik, iturriak orraztu eta gaiari zer edo zer sakondu eta gero, gaia erabakitzeke moduan zaude.




*Leninen ezagutzaren nozioa empiriokritizismoari eginko kritikan.* III

## 2. KRITIKOA

Idazlanak gaiaren tratamendu sakona eta kritikoa islatu behar du. Dena dela, ondo aukeratu behar da kritiko noiz izan eta, batez ere, zerekin izan. Horretarako, eztena non sartu ondo aukeratzeko alegia, asko irakurtzea komeni da. Asko irakurtzea eta, oroz gainera, irakurketa hori modu hautatu eta kritikoa egitea. Zer esan nahi du horrek praktikan? Hona hemen hiru aholku:

- (i) Hasieran “begirune” gehiegirik gabe irakurri. Irakurketa arin eta azkar horrekin, nolabait esanda, gaiaren mapa orokorra osatzen ari zara.

 Ez zaituz lehengo irakurketez fidatu. Zerbait liburu batean egoteak —are gutxiago Interneten egoteak— ez du esan nahi hura erabat zuzena edo egiazkoa denik. III

- (ii) Ulertu irakurritakoa. Azaleko irakurketa egin ondoren ez duzu inpresio lausoekin konformatu behar. Testu hobereak aukeratu (zure gaiari gehien lotzen zaizkionak, garbienenak direnak...) eta haiek esan nahi dutena —eta esan nahi ez dutena— ulertu behar duzu. Kontuz interpretazio *mamuekin!*

- (iii) Ebaluatu behin eta berriro irakurritakoa. Irakurritakoa beste egileen iritzi eta tesiekin kontrastatu; baita dituzun datuekin ere. Horrekin guztiarekin, hasi pentsatzen zein izan daitekeen zure ekarpena.

Esan bezala, idazlan akademikoak lantzen duen gaiaren interpretazio kritikoa islatu behar du. Horretarako, ohikoena izaten da, beste idazle eta pentsalariak idatziriko ideiak bildu eta, ondoren, oinarri horren gainean, norberaren irizpidea eta gaitasun kritikoa erakustea.



“Nire ustez Sokrates ez zen benetako desobeditzailea izan. Dena dela, badago Sokratesen suizidioa desobedientzia kasutzat har dezakegula esaten duenik. Izan ere, errugabea izanagatik heriotza zigorra betetzeko adierazi zuen grina (Platon, *Fedon*) edo egindakoa behin eta mila aldiz egingo lukeela tribunalari esatea (Platon, *Sokratesen defentsa*), zenbaitek desobedientziaren jarraitzearen aitzindaritzat hartzen dute. Lan honetan, ordea, albo batera utziko dut interpretazio hori eta Sokratesen heriotza ez dela desobedientzia kasu bat izan defendatuko dut. Lege arruntari zion begiramenak eta errespetuak ez du haren kasua desobedientzia kasutzat hartzen uzten. Gainera, normalki, klasikoan artean desobedientzia kasuak aztertzen direnean kanpoan utzi ohi da Sokratesen heriotza eta beste adibide garbiagoak lantzen dira, esaterako, *Antigonaren kasua*”. III



Idazlan akademikoan garbi adierazi behar da, esplizituki, zer den besteena eta zer norberaren ekarpena. III

Beraz, idazlanean zure ideiak azaltzea positiboa da, ez izan zalantzarik. Hori bai, aurkezten diren ideia guztiak arrazoitu egin behar dira. Akademian argudioen babesik gabeko ideiek ez dute baliorik.



“Nire ustez Sokrates kolidar hutsa izan zen eta gaizki iruditzen zait bere buruaz beste egin izana.” ← GAIZKI

“Nire iritziz Sokratesen heriotzak botere tiranikoa desobeditzea ziflegi ote den galdetzera garamatza. Sokratesek bi aukera zituen, agintariak hartutako erabaki bidegabea desobeditu (eta kartzelatik ihes egin) edo bere heriotzari aurre egin [Platon, *Sokratesen apologia*]. Desobedientziarekiko zuen aurkakotasunak bigarren bidea aukeratzera eramane zuen. Dena dela, boterea beti obeditu behar dela zalantzarikoa da, eta ondoren hori azaltzen saiatuko naiz”. ← ONDO III

Bestalde, fenomeno, gertakizun, ideia eta abarren deskribapena eta azalpena zure *analisiarekin* konbinatu behar dituzu.



#### Deskribapena + Azalpena + *Analisia*

*Adibidez, ez da nahikoa Sokratesek, astaperrexila hartu baino lehen egindako diskurtsoko parafraasiaren bidez, haren heriotza laburtzea edo azaltzea. Ekintza hura aztertu beharko duzu, Sokratesek esan zuena eta, kasu honetan hau ere garrantzizkoa, hitz haien atzean dagoena ere kontuan hartuta. III*

Adibide partikularrak (kasu zehatz bat, dituzun datuak...) ere erabil daitezke kontzeptu, ideia edo teoria orokorrez ondorioak ateratzeko.



*Sokratesen heriotza → Heriotzaren aurreko ausardia, askatasun indibiduala boterearen aurrean, etab. III*

### 3. ARGUDIATUA

Idazlanaren mamia argudioa da. Argudioak zure ideia, proposamen edo ekarpenaren defentsa egiten du. Horregatik, komeni zaizu, zure ideia ongi azaltzea ez ezik, hura ongi defendatzea, *garbi* eta *koherenteki* defendatzea, alegia.

Zure ideien defentsa argudioen bitartez egingo da, jakina, baina nola egiten da hori?

- (i) Irakurtzerakoan eta idazterakoan argudiatzerako garrantzizkoa den guztia hautatu.
- (ii) Lana argudioaren arabera egituratu:
  - a. Lehenik, erasoko diozun posizioa azaldu.
  - b. Ondoren, onartzen dituzun datu, froga eta tesiak aurkeztu.
  - c. Jarraian, eratorrarazi duzun guztia ongi justifikatu.
  - d. Bukatzeko, zure emaitzak edo ondorioak eman.
- (iii) Argudiatzearen urrats orok justifikatuta egon behar du. Horretarako erabil ditzakezu:
  - a. frogak
  - b. aipuak
  - c. adibideak
  - d. azalpenak
  - e. beste batzuk
- (iv) Material berrietara jotzea beharrezkoa bada, jo haietara.

### 4. ARRETAZ EGINA

Lana aurkezterakoan akademiaren zuzenketa-irizpideak kontuan izan behar dira. Zuzenketa eta egokitzapena bi mailatan ematen dira:

- (i) Azalekoa: gramatika, ortografia, aipuen aurkezpena eta erabilera, bibliografia erreferentziak eta tresneria kritikoa. Azaleko gauzak diren arren, nabardura horiek benetako garrantzia izaten dute lana epaitzerakoan.

(ii) Mamiari dagokiona:

- Tonu eta estilo akademikoa ongi erabili.
- Diziplina zehatz bakoitzari dagokiona hobetsi.
- Terminologia teknikoa zuzen erabili.
- Datuak, grafikoak eta erreferentziak aurkeztean zehatza izan.
- Inoren ideiak, datuak, aipuak eta hitzak erabiltzerakoan zintzo jokatu.

Dena dela, aurkezpenean gai hau sakonago aztertuko da.

## II. Bilaketa

### 1. INFORMAZIO-ITURRIAK

Idazlan akademiko on bat egiteko giltzarria *informazioa* izan daiteke. Eskura ditugun datu, teoria, ideia eta gainerakoak onak badira —egokiak, zehatzak, fidagarriak...— lana ere halakoa izango da segurik. Aitzitik, eskura dugun informazioa kaskarra bada, nekez egingo dugu zume edo zumitz horiekin otarre onik. Idazlan onak egiteko, beraz, informazio ona bilatzen jakin egin behar da eta bertara heltzen. Atal honetan, informazioa eskuratzeko modurik ohikoenak eta fidagarrienak aurkeztuko dizkizugu.

Informazioa non bilatu behar den jakiteko, lehenik eta behin, hiru dokumentu-mota bereizi behar dira:

- *Dokumentu lehenak.* Horietan jatorrizko informazioa dator, hots, egileak berak sorturikoa (artikulu, liburu edo monografiak, iruzkinak, etab.).
- *Dokumentu bigarrenak.* Horiek dokumentu lehenen informazioa deskribatzen dute. Alegia, ez dute gaia zuzenean jorratzen, baizik besteek esandakoa ekartzen, laburtzen, biltzen, erkatzen edo aztertzen. Horrelako testuak beharrezkoak dira hainbat ideia edo eztabaida konplexu askatzen laguntzeko.
- *Dokumentu hirugarrenak.* Dokumentu hirugarrenen funtzioa hau da: bigarren mailako dokumentu andanaren artean irakurleri aholku ematea eta gidatzea.

Sailkapen horren arabera, informazioaren bilaketa, batez ere, dokumentu hirugarrenen bitartez egiten da. Alegia, ondoren aurkeztuko ditugun bitartekoak, ia guztiak, dokumentu hirugarrenak direla esan dezakegu.

Horretan sartu aurretik, ordea, informazioaren euskarrien inguruan ohar bat.

### 2. INFORMAZIOAREN EUSKARRIAK

Moderniaz geroztik, liburuia izan da ezagutzaren edo informazioaren euskarri nagusia. Gaur egun ere, oro har, hala da. Zerbaiten bila bagabiltza, normalena, liburuetara jotzea da. Dena dela, komeni da jakitea, liburu tradizionalaz aparte, gaur egun euskarri gehiago ere badela: mikrofilmak, mikrofitxak, audio- edo bideo-zintak, euskarri magnetikoak eta, jakina, telematika. Denak izan daitezke dokumentuak, denek gorde dezakete informazioa, baina informazioa biltzeko modua eta hura identifikatzeko era desberdinak erabiltzen dituzte.

Informazio bila bazabiltza, jakin behar duzu liburuez gain beste informazio iturririk badagoela. Informazioa ez dago liburutegietan bakarrik! Alegia, bilatzen duzun informazioa zer euskarritan dagoen, batera edo bestera jo beharko duzu:

EUSKARRIA		NORA JO
Eskuidatziak, inprimakiak	→	Artxihoak
Liburuak eta liburuxkak	→	Liburutegiak
Aldizkariak eta kazetak	→	Hemerotekak
Telematiko edo informatikoak	→	Datu-baseak, datu-bankoak edo datu-guneak
Ikus-entzunezkoak	→	Fonotekak, bideo-filmotekak



Ikasketa fase honetan, artxihoak ez dira oso erabilgarriak, normalean interesatzen zaizun material gehiena dokumentu gisa eskura baitaude. Beraz, ez dizugu aholkatzen artxibora joatea dokumentu berezien bila, praktikoagoa baita dokumentu arruntez baliatzea. Filosofian lantzen diren arazo gehienek gaiarekin dute zerikusia eta, horretarako, normalki nahikoa izaten da liburutegietan, Interneten eta hainbatetan aurkitzen den informazioarekin. ■

### 3. OHIKO BILAKETA

Idazlanerako baliagarri izan daitekeen materialaren bila bazabiltza egokiena liburutegietako katalogoei begiratzea da. Dena dela, beste bide batzuk ere badaude:

#### 3.1. Katalogoak

Zentro edo liburutegi bakoitzak bere dokumentu-bildumaren katalogoa eskaintzen du. Adibidez, filosofia fakultate bakoitzak bere liburuaren katalogo propioa du. Katalogoak kontsultatzeak bi abantaila nabarmen ditu. Lehen, bilaketa erraza dela, gaiaren, autorearen edo izenburuaren arabera egin baitaiteke. Bigarrena, behin dokumentua aurkituta badakizula hura bertan dagoela eta ez duzula kanpoan eskatu beharrik. Gainera, gaur egun katalogoak sarean eskegita daudenez, kontsultak etxetik egin daitezke, Interneten bidez.



Munduko liburu-katalogorik garrantzitsuen AEBko kongresuko liburutegikoa da. Bertan aurki daitezke argitaratzen diren ia liburu guztien erreferentzia osoak: [www.loc.gov](http://www.loc.gov). Bibliografia atontzen ari bazara eta erreferentziaren bat galdu baduzu, hor begira dezakezu. ■

Bilatzen duzun liburua zein den badakizu bilaketa arrunta nahikoa izango zaizu. Dagokion tokian jarri autorearen izena edo liburuaren izenburua eta berehala jakingo duzu liburu hori ba ote duen. Bilaketa orokorra egin nahi baduzu, ordea, gai bati buruzko liburu zerrenda bat lortu nahi baduzu, alegia, orduan horretarako bilaketa boolearra erabili beharko duzu. Bilaketa boolearra oso praktikoa da, baina deskribatzaileak eta eragileak zuzen erabiltzea eskatzen du. Erraza da. Lehenik, aukeratu landu nahi duzun gaiari dagozkion giltza-hitzak. Eta, ondoren, eragile boolearren bitartez haiek konbinatu:

- AND eragile boolearra erabiliz lorturiko erreferentziak batu daitezke. Horrela, AND eragilearen aurreko eta ondorengo deskribatzaileek dituzten sarrera guztiak eskuratuko dituzu.



*Etika AND Rawls* ■

- OR erabili beharko duzu erreferentzia-multzoak gainjartzea nahi baduzu. Alegia, modu horretara bi ezaugarri horietako bat, edo biak, duen edozer eskuratuko duzu.



*Etika OR Rawls* ■

- NOT erabiltzen da, deskribatzaileen bat kendu nahi denean. Alegia, horrela lehenbiziko ezaugarria bigarrenik gabe duen edozer eskuratuko duzu.



*Etika NOT Rawls III*

Dena dela, bilaketa ez da deskribatzaileen bitartez bakarrik egiten; idatz dezakezu edozein termino arrunt. Kasu horietan, hitz moztuak, mozorroak, atzizkiak eta aurrizkiak erabil daitezke.

- Hitz moztuetan, adibidez, hitza banandu egiten da eta, horrela, haren lexema duten termino guztiak lortzen dira.



PENTSA? \_\_\_\_\_ KOR  
LARIA  
MENDUA  
... III

- Mozorroek hitzaren sustraiaren harantzagoko karakter kopurua (adibidez, 3 direnean, “—”) zehazten dituzte. Horrela, soilik hainbeste karaktere-kopuru dituzten sarrerak agertuko zaizkizu.



FILOSO?--? \_\_\_\_\_ FIA  
FOA

*Baina ez FILOSOFEA edo FILOSOFIARENA III*

Lortuko duzun informazioak hau eskainiko dizu:

- datu-basean informazio horrek duen identifikazio-zenbakia
- lanaren izenburua
- egilea(k)
- egileen instituzioa
- erreferentzia bibliografiko osoa
- laburpena
- deskribatzaileak
- erlazionaturiko bigarren mailako hitzak



Datu-base mota asko da, baita informazioaren banatzaile asko ere.

Dena dela, komeni zaizu gida hauek kontsultatzea:

- (1) *Database Directory*, New York, White Plains, Knowledge Industry Publications, 2003.
- (2) Marcaccio, K. Y. 2003: *Directory of Online Databases*, Detroit, Gale Research Inc. (serie bat denez, eguneratu egiten da).


### 3.2. Bibliografia

Normalki bibliografia liburu edo artikuluen atzean aurkitzen da eta egileak landu edo aipatu dituen dokumentuen zerrenda izan ohi da. Bibliografia ona bada dokumentuaren erreferentzia osoa emango du (egilea, izenburua, urtea, argitaletxea...). Bestalde, bibliografietan agertzen diren dokumentuak badute nolabaiteko fidagarritasunik (liburuak edo artikulua ematen duen adinakoa, gutxienik) liburuan edo artikuluan jorratzen den gaiari buruzko dokumentu aipagarrienak izaten direlako bibliografian jasotzen direnak. Beraz,

liburu berrietara salto egiteko bide egokia da erabiltzen dituzun liburuen atzeko bibliografiari begiratzea.

### 3.3. Erreperorioak

Gai baten inguruan argitaratzen diren liburu eta, batez ere, artikuluen informazio laburra eraaten dute —erreferentzia bibliografikoa eta laburpena—. Maiztasunak —hiru hilabetez behin edo gutxiago— informazioa eguneratuta izatea bermatzen du. Horregatik, behin maila batetik aurrera, ikerketan etab., asko erabiltzen dira. Ikusiko dugunez, gaur egun, erreperorioak ere Interneten bidez kontsulta daitezke.

 *Erreperorioen artean filosofian erabiliena Philosopher's Index izenekoa da. Datu-base horretan jasotzen dira filosofiako aldizkari gehienetan jasotako erreferentzia guztiak (kontsultaren bat egiteko ikusi aurrerago). III*

## 4. BILAKETA AUTOMATIZATUA

Teknologia berriei esker, edozein motatako bilaketak egiteko gune oso aberatsa eta eman-korra eratu da denbora gutxian: sarea. Horregatik, bilaketa akademikoak egiteko komeni zaizu ahalik eta lasterren sarean nabigatzen ikastea. Euskarri informatikoa duten beste bilaketa tresna batzuekin batera —CD-Rom, e-mail, etab.—, sareak eskaintzen dituen baliabideak ere kontuan har itzazu, beraz.

### 4.1. Internet


Interneten nabigatzeko bide erraz eta ezagunena, baita hedatuena ere, WWW da. Informazio eguneratua eskuratzeko baliabideak eskaintzen dizkizu, material grafikoa (argazkiak, koadroak, estatistikak, diagramak, etab) lortzen laguntzen dizu, iritzi-iturri alternatiboak aurkitzen, etab. Eta dena arin eta azkar.



Bilaketa orokorrak Google-n egin ditzakezu: [www.google.com](http://www.google.com). Dena dela, bilatzen zabiltzana filosofiari lotzen bazaio beste gune hau, beharbada, zuzenagoa da: [www.epistemelinks.com](http://www.epistemelinks.com). III

Haatik, Internetek eskaintzen duen abantaila bakoitzak badu alde hain ona ez dena ere. Informazioa eguneratua izateak ez du esan nahi kalitatezkoa denik. Azken beltzean, kalitate “baheek” oraindik ez dute toki handirik Interneten; izan ere, nabigatzerakoan zure lehenbiziko betebeharra informazioaren kalitatea eta sinesgarritasuna determinatzea da, eta hori soilik informatikatik at dauden teknika tradizionalen bitartez lortuko duzu.

Bestetik, normalki, kalitatezko guneak itxita aurkituko dituzu, bertara sartzeko ordainsaria eskatzen dutelako.

 *Unibertsitateko ikasgaiak hobeto garatzeko nahiko arrunta da egun Web-orriak eta Web-guneak eratzeko —beren e-mail helbide eta guzti—. Gune horien helburua bertan, bai foroetan bai berrien taldeetan (news groups), informazioa eskura uztea eta eztabaida piztea da. Komeni da, beraz, zure lana egiteko informazio erabilgarririk horietan ba ote dagoen begiratzea. III*

Berritasun, bitxikeria eta iradokizunekin batera ez ahaztu sarean beti “zarata” —“zaborra”— ere agertzen dela. Egia da badirela aldizkari elektronikoko batzuk kalitatearen kontrolpean daudenak, baita bilaketa tresna batzuk ere —adibidez, Argus Clearinghouse—guneak aztertzen dituztenak —kalitatea lortzea da horren helburua, jakina—, baina egia ere

bada dokumentu edo arxibo ugari metatzen dela kontroletik at. Hortaz, nola jakin lan akademiko zorrotz bat egiteko fidagarri denetz?

#### 4.2. Sareko informazioa

WWW-ren informazioa baloratzeko egin behar duzun lehenengo gauza zera da, modu tradizionalako informazio idatziari aplikaturiko irizpide berak Interneti ere aplikatu.




Irizpide estetikoek eta teknikoek materialen kalitateari buruzko ideia bat ere emango dizute:

- gunearen aurkezpena eta itxura orokorra
- esteken fidagarritasuna eta eguneratzea
- nabigatzeko erraztasunak
- grafiko funtzionalak —ez soilik apaingarriak—

Dena den, horiek bigarren mailako irizpideak dira. ■

Sarean zuhurki nabigatzeko aholkuak honako hauek dira:

- Nabigatzen hasi baino lehen, argi izan zein den zure *xedea*.

 *Esan legez, lanaren gaiak definitzen du xedea. Aitzitik, sarearen berezko izaerak komeni ez zaizkizun bideekin "tenta" zaitzake, WWW arnarma-sare bat baita, hainbat gunek osaturiko eta mugarik gabe nabigatzen lagatzen duen mundu konplexua. Horrek orrialde interesgarri eta harrigarri asko lortzeko bidea eskainiko dizu, baina ziur asko zure hasierako xedea atzean utzita. Eta txarrena: materiala antolatzeke eta lana amaitzeko denbora eta irizpiderik gabe. ■*

- Sarean aurkitzen duzunari sakonki behatu. Ziurtatu hasierako xedearekin zerikusirik ba ote duen. Askotan lanaren gaiarekin itxuraz, soilik itxuraz, erlazionaturiko material ugari ikusiko duzu. Kontuz horiekin.
- Aztertu aurkitzen duzunak eskaintzen duen informazioa osoa ala partziala den. Askotan web-guneak pertsonalak izaten dira eta partzialak izateko arrisku gehiago dute. Begiratu, baita ere, ea argudiatua den, egiturarik ba ote duen, koherentea den, etab.
- Ohar zaitez baieztatzen dena (datuak, baieztapenak) kontrastagarria den, edo kontrastatzeko bideak ematen ote dituen, batez ere erreferentziak, bibliografia orokorra eta beste iturri batzuk. Behatu ea terminologia eta itzulpenak behar diren bezala erabiltzen diren ere.

Horrekin guztiarekin batera material informatikoari dagozkion beste bi ohar ere egin daitezke. Lehenak, egilearekin du zerikusia; bigarrenak, berriz, eguneratzearekin:

- *Egilea*. Web-guneak egilearen edo editorearen —informazioa argitaratzen duena horren egilea ez bada— identifikazioa eduki behar du (izena, maila akademikoa, lanbide-estatusa). Horri esker egilea ezaguna edo identifikagarria —unibertsitate batean, enpresan, komunikabideetan— ote den jakingo duzu.
- *Jadanekotasuna*. Web-gune onak maiz eguneratzen dira —arretaren adierazgarria da hori—. Beraz, begiratu dokumentua noiz sortua den eta ea eguneratuta dagoen. Ez ahaztu edukien datuen datei (bibliografiari, estatistikei...) begiratzea.



*Nolanahi ere, kontuan izan Internet, meningtoz, soilik lan tradizionalaren osagarria dela; ez haren ordezkoa. ■*

### 4.3. Online bilaketa

Informazio ona lortzeko, egokiena bilaketa estrategia bat prestatzea da (bestela zabor gehiegi aterako zaizu). Horretarako argi izan behar duzu zeintzuk diren zeure helburuak, zer bilatu nahi duzun: arloa, izenak, termino zehatzak edo teknikoak eta, nola ez, hizkuntza. Filosofian, jakina, dokumentu gehienak ingelesez daude.



*Bilatzeko estrategia guztien arriskua zabor gehiegi agertzea da.* ■

### 4.4. Philosopher's Index-a

Filosofia fakultateko ikasleok baduzue *index* hau erabiltzeko aukera. Prozesua antzekoa da guztietan, dena den, gu UPV/EHUko kasura mugatuko gara eman beharreko pauso guztiak deskribatzeko eredu on bat eskaintzen duelako. *Philosopher's Indexa* kontsultatzeko egin beharreko urratsak honako hauek dira:

- Unibertsitateko web-guneko datu-baseetara joan [www.biblioteca.ehu.es/basing11e.htm].
- Datu-baseen helbide horretan hiru aukera izango dituzu:
  - + aurkibide alfabetikoa
  - + gaien arabera antolatutako aurkibidea
  - + azalpenak eta baldintzak



*Philosopher's Indexekin batera datu basean beste index batzuk ere aurki ditzakezu.*

1. Giza eta gizarte-zientzietakoak → www.biblioteca.ehu.es/basing7.htm
2. Arte, Humanitate eta Gizarte-Zientzietakoak → PCI [www.biblioteca.ehu.es/cdrom69e.htm]
3. Tesienak → TESEO
4. Zientzia eta Teknologiarenak → Science Citation Index Expanded (Web of Knowledge) [www.biblioteca.ehu.es/cdrom107.htm]. ■

- Bilatu *Philosopher's Index* eta saka bertan [www.biblioteca.ehu.es/cdrom13e.htm]. Aurrera jotzeko hainbat baldintza bete behar dituzu:
  - + lehengo eta behin, Cliente ICA programa izan behar duzu zure konputagailuan datu-base horietan sartu ahal izateko.



*Programaren bertsio bat baino gehiago dagoenez, zure ordenagailuari egokitzen zaiona instalatu behar duzu (exekuziorako, nabigatzailea itxi). Dena dela, orrialde horrek berak eskaintzen dizu haiek instalatzeko modua (Macintosh-erako, Windows 95 edo NTrako eta Windows 3.x-rako bai behintzat). ■*

- + bigarrenik sarrera-kodea behar duzu. Hori, ordea, eskatu egin behar izaten da. Non? Helbide honetan: llzbibli@lg.ehu.es, honakoaz informatuz: izena, NA, saila, telefonoa eta helbide elektronikoa. Arazoren bat izanez gero, 943 14 2098 telefono zenbakira deitu.

### 4.5. Informazio askea (Copyleft)

Dakizunez, Interneten eskegita dauden hainbat materialen truke ordaindu egin behar da. Horren aurka, *Copyleft* lizentzien aldeko mugimendua orain dela gutxi sortu da, eta euren helburuak bi ardatz ditu. Lehena, "copyright"aren alderantzizkoa bultzatzea, edozein

libre izan dadin nahi duena, edo komeni zaiona, kopiatzeko eta erabiltzeko —liburuak, artikuluak, musika, artea, softwarea, etab.—. Bigarrena, norberaren argitaratze-aukerak handiagotzea da. Beraz, *copyleft* esparrua izan daiteke aukera ona interesatzen zaizkizun testu ugarien bila aritu edo zeureak publikoaren aurrean eskegitzeko.



Abiapuntu gisa, hona hemen *copyleft* eremuko hiru helbide:

- [www.sindominio.net/autonomiasituada/s/recursos/rec\\_lic/index.html](http://www.sindominio.net/autonomiasituada/s/recursos/rec_lic/index.html)
- [www.sindominio.net/biblioweb/telematica/infolibre.html](http://www.sindominio.net/biblioweb/telematica/infolibre.html)
- [www.gnu.org/philosophy/pragmatic.es.html](http://www.gnu.org/philosophy/pragmatic.es.html)



*Ez duzu ahaztu behar beste bide automatizatu batzuk ere badituzula: CD-Roma, mikrofilmak, mikrofitxak, etab. Horiek guztiak eskura dituzu egun edozein dokumentaziogunetan. Beraz, osagarri gisa balio badizute, horietara jo zalanzarik gabe. III*

## III. Irakurketa


### 1. PROBETXUZKO IRAKURKETA

Edozein gairen funtsezko auziak identifikatzeko hoberena irakurtzen hastea da. Zer eta nola irakurri da auzia, beraz.

#### 1.1. Abiapuntua: erreferentziazko testuak

Irakurketak hasi aurretik, hau jakin behar duzu: komeni da lehenengo irakurketak beti erreferentziazko testuak izatea (testu-liburuak, entziklopedietako sarrerak, eskuliburuetak (handbooks) sarrerak...). Alegia, edozein gai landu behar baduzu erreferentziazko testuak hartu eta haietatik abiatu behar duzu zeure irakurketa.

Erreferentziazko testuak bilatzeko irakasle edo ikaskideekin hitz egin dezakezu, izan ere, landu beharreko gai zerrendarekin batera irakasleak bibliografia bat eskain dezake, edo eskaini beharko luke. Bestela, gaia jorratua duen ikaskideren batek (edo liburutegietako arduradunak, edo tutoreak, edo...) ere lagun zaitzake.


 Normalki, erreferentziazko testu guztiak oso ezagunak izan ohi dira, itzulita egoten dira eta argitaletxe garrantzitsuek ateratzen dituzte. Dena dela, aholkatu dizuten irakurgaien zerrendari ematen diozun fidagarritasun-maila zure esku dago. ■

Erreferentziazko testuen zerrenda eginda duzunean, bi kontu:

- (i) Aholkatzen den material guztia hasieratik bukaeraraino irakurri beharrik ez dago —ez da beharrezkoa ezta praktikoa ere—.
- (ii) Gerta liteke bibliografian agertzen ez den erreferentziaren bat beharrezkoa izatea. Kasu horretan, zuk zeuk lortu beharko duzu materiala (5. puntua).

#### 1.2. Ondorengo irakurketak

Erreferentziazko liburuek abiapuntua eskaintzen duten arren, normalki ez dute idazlan bat osatzeko behar beste material eskaintzen. Gehiago irakurri beharra izaten da. Zer, ordea? Hasieran komeni da gaiaren panoramika orokorra eskaintzen duten liburu orokorrak irakurtzea, idazlanean lant dezakezun auzia aukeratzeko. Ondoren, auzi horren inguruko xehetasunetan sartzeko, liburu edo artikulua espezializatuak irakurtzera pasa zaitzake.

 Bibliografia batek bestea dakar. Alegia, ia liburu guztiek dute atzean "bibliografia" izeneko atala. Lantzen ari zaren gaiari buruzko liburu berriak bilatzeko, beraz, ohitura ona da hor begiratzea. Horrela, liburu eta artikulua kateatzen joango zara erraz eta modu fidagarrian. ■

## (i) Sarrera-liburuak

La gai guztietan daude sarrera-liburuak, normalki bat baino gehiago. Haien artean aukeratzeko irizpide orokorra argitaratze-urtea izan ohi da —komeni da, dena dela, argita-letxeari eta aurkibideari ere begiratzea—.

- Gaiaren ikuspegi zabalena ematen du(t)en libururik berriena(k) aukeratu.
- Zaharragoa den bat aukera dezakezu, baina soilik gaiaren esparruan onarturiko autoritatea bada (jakina, filosofo bati buruzko lana egin behar baduzu, adibidez, filosofo horren idazkietara jotzea beharrezkoa izango duzu).

## (ii) Liburu espezializatuagoak

Landu beharreko auzia aukeratu ondoren, gaia berariaz jorratzen duen liburuak —edo liburuen atalak— irakurri behar dira. Dena den, material espezializatuaren egokitasuna neurtzerako ohikoena honako ildo hauei jarraitzea izaten da:

- a. gaia bere orokortasunean ondo aurkeztea
- b. onarturiko autoritate batek idatzia izatea
- c. ahalik eta eguneratuena izatea
- d. ahalik eta eztabaida zehatzenak jasotzea

## (iii) Artikuluak

Alabaina, gaiari buruz dagoen materialik berriena aurkitu nahi baduzu, hoberena aldizkari espezializatuera jotzea da, batik bat ospe onekoak badira. Aldizkari horietan, dena den, auzian dauden gaiak eta eztabaidak aurki ditzakezu eta hori, beharbada, aurreratuegia irudituko zaizu. Kasu horretan, liburuetara itzuli.



Ikerketa-esparru zehatz batean argitaratzen diren aldizkako argitalpenak ezagutzeko direktorio hau oso egokian izango zaizu:  
2003: *Ulrich's International Periodicals Directory 2002-2003 (including Irregular Serials & Annuals)*, New Jersey, R. R. Bowker.

## (iv) Besteak

Badira beste hainbat argitalpen normalki idazlan akademiko baterako garrantzirik ez dutenak. Oro har, adituei zuzenduta daude eta fidagarritasuna ez dute bermatua izaten. Horien artean bereiz daitezke, esaterako:

- a. tratatuak
- b. bildumak
- c. monografiak
- d. tesiak (*dissertations*)
- e. kongresu eta mintegietako aktak (*proceedings*)
- f. serieak
- g. ...



Bibliografia berria bilatzeko beste aukera datu eta informazio-iturrietara joatea da: fitxategiak, liburutegiak, on line katalogoak, aldizkarien aurkibideak (hemerroteketan), Internet, CD-Rom... Ikus 5. puntua. ■

Nahiko material jaso baduzu, orain sortuko zaizkizun zailtasunak beste mota batekoak izango dira:

- Duzun denborarako gehiegi dago irakurtzeko.
- Gaiaren zailtasunak moteldu egiten du irakurketaren erritmoa.
- Kosta egiten zaizu irakurritakoaz ideia eta ondorio garbiak ateratzea.


Lasai hartu. Zailtasun horiek normalak dira, guztiok izaten ditugu. Gainera, formula magikorik ere ez dagoenez, norberak bilatu behar izaten ditu arazo horiek saihesteko norberarentzako egokienak diren konponbideak.

## 2. IRAKURKETA-TEKNIKAK

Irakurketa on batek bi faktore biltzen ditu: *irakurketa ona* eta *irakurketa azkarra*. Hori lortzeko honako hiru teknika hauek aholkatzen dira normalki:

### 2.1. Irakurketa azeleratua


Azkar irakurtzen laguntzen du, baina arrisku bat du, alegia, arretaz irakurtzea galarazten duela. Ez baduzu ongi ulertzen irakurtzen duzuna, hobe da azelerazioa uztea.

 Gaietik irakurtzeak materialaren egokitasunaz jakiteko aukera emango dizu, baina ez ahaztu ez duela ordezkatzeko filosofian behar duzun irakurketa sakona. Gaietik irakurtzeak, hortaz, materiala hautatzeko balioko dizu, horren bila aurretik duzun helburu batekin (gai bat dela eta) abiatuko baitzara. ■

### 2.2. Scanner irakurketa

Informazio zehatza bilatzeko oso egokia eta erabilgarria, baina ez arretaz irakurtzeko. Dena dela, ongi erabiliz gero oso teknika praktikoa izan daiteke. Horretarako, teknika hau ondoko iradokizun hauekin konbinatu behar da:

- Oinarrizko *adierazleak* bilatu: izenburua, atalak, azpimarratutako terminoak, lokailuak, etab.
- Atalka irakur dezakezu: lehenengo eta behin, oso azkar, baina testua ulertuz. Ondoren, berrirakurri eta laburbildu materiala edo oharrak hartu.
- Paragrafoen hasierako esaldiak irakurri, horiek gaiaren arrasto garbiak emango dizkizute-eta. Ondoren, paragraforen batean interesa baduzu, astiroago irakurri. Bestela bada, denborarik ez galdu, eta segi aurrera.

 Garrantzi handia du paragrafoa eduki-unitate gisa hartzeak. Zergatik? Oro har, idazleek paragrafoa hartzen dutelako argudio-egituraren unitate gisa. ■

### 2.3. Paragrafoz paragrafoko azaleko irakurketa

Beharbada, hau da egokiena lan akademikorako. Dena dela, filosofian maiz zorroztasun handia behar izaten da, lerroz lerroko irakurketek bakarrik eskaintzen dutena. Horregatik komeni da aurrean duzun testua ongi sailkatzea eta aipagarriena zehaztasun handiagoz irakurtzea.

Horretarako, irakurketa bikoitza gomendatzen dizugu, modu honetan:

- *Irakurketa-1.* Neur ezazu gutxi gorabehera 15 orrialdeko irakurketa-unitate bat eta horren edukia artikulua, kapitulu edo atalen baten bukaerari egokitu iezaiozu. Irakurri arkatx bat eskura duzula —zurea bada testua, bertan azpimarratzeko, edo, bestela, fitxa batean— eta enuntziatu (edo paragrafo) garrantzitsuenak edo zailenak edo beharrezkoenak hautatu. Hautapenean kontu handia jarri, sarri material gehiegi onartzeko joera baitugu.
- *Irakurketa-2.* Berrirori irakurri hautaturiko informazioa orain are arreta handiagoa ipiniz.



Irakurketa-teknikei buruz gehiago jakin nahi izanez gero, begiratu  
Clanchy, J. eta Ballard, B. 1997.

### 3. OHARRAK HARTU ETA FITXAK EGIN

Irakurtzean zenbait ideia eta haien arteko loturak "ikusiko" dituzu. Horietatik batzuk zure idazlanerako baliagarri gerta dakizkizuke. Kontua da, ordea, haiek ez badituzu non edo non idazten, ba, ahaztu egin ditzakezula. Beraz, ohitura ona da irakurri ahala oharrak hartzea eta fitxetan biltzea.



*Irakurtzean oharrak hartzeko euskarriren bat beti alboan izatea komeni da. III*

#### 3.1. Oharrak zertarako?

Oharretan ez da ezer berririk idazten. Beste leku batean idatzita dagoena jasotzen da oharretan. Hori hala izanik, agian, oharrak hartzea denbora galtzea dela irudituko zaizu. Baina ez da hala. Badaude oharrak hartzeko bi arrazoi:

- (i) Oharrek *gogoratzen* laguntzen dute. Oharrak gure memoriari jartzen dizkiogun "protesiak" dira, nolabait esateko. Zer gogoratu nahi (behar) dugun adierazten dute oharrek. Izan ere, irakurri beharrek asko denean, irakurritako ideiak zein horien arteko loturak ahazteko arriskua egon daiteke. Komeni da, beraz, informazio aipagarria sailkatzea eta ordenatzea, ondoren, lanaren plangintzan eta idazketa-fasetan eskura izateko. Bestalde, aspaldi irakurritakoak modu azkar eta ordenatuan berreskuratzeko ere balio dute oharrek.
- (ii) Oharrek berrirakurketa *gizatzen* dute. Zenbaitetan liburu bat (artikulu bat, atal bat...) behin baino gehiagotan irakurri beharra izaten da. Berrirakurketa horiek azkartzeko eta zuzenean nahi dugun tokira heltzeko, oharrak izatea eta begiratzea komeni da. Adibidez, Platonen *Kriton* lehen aldiz irakurtzen duzunean oharrak ateratzen badituzu, ondoren bertan agertzen den ezagutzaren definizioa behar baduzu, ez duzu elkarriketa osoa berrirori irakurri beharrik izango. Fitxan begiratu eta zuzenean zati horretara joan zaitezke.



Oharrekin zeure lana antolatuko duzu:

- Ideiak eta argudioak laburbildu.
- Ideien arteko loturak hautatu.
- Jatorrizko testua interpretatu eta ulertu.
- Eta, batik bat, zeure burua testuaren irakurketa sakona egitera behartu. III

### 3.2. Irizpide orokorrak

Oharrak hartzeko modu asko dago, zalantzarik gabe. Oharrak pertsonalak direnez, bakoitzak bere oharrak ateratzen ditu, egokiak iruditzen zaizkion eran. Bestalde, oharrak edozein euskarritan jaso daitezke (paper puska bat, koaderno bat, konputagailuko dokumentu bat, liburu baten bazterrak); ondoren, egokiena, haiek fitxetan antolatu eta gordetzea da. Dena dela, badira hiru printzipio orokor oharrak hartu eta fitxetan jasotzeko.

- (i) Zure helburuak: lanaren zertarakoa argi eta garbi ikusten baduzu, nahi duzun beste material bil dezakezu. Batzuek dena hartu nahi dute, "badaezpada", baina hori ez da estrategiarik egokiena. Hobe da "nire lanaren helburua" iparrorratzak zu bideratzea eta berorri loturikoa soilik hautatzea.



*Helburua → hipotesi mentalak analizatzea Descartesen filosofiarekin lotuta*

- Fitxa egokia: *Meditazio Metafisikoak* liburuaren "Jenio Maltzuraren" hipotesia
- Fitxa desegokia: *Cogitarearen arazoa*

*Soilik lehenengoak du zerikusirik zure lanaren helburuarekin! III*

- (ii) Identifikazio garbia eta zuzena: oharrak eta fitxak ongi antolatu beharko dituzu, bi puntu hauek, gutxienez, aintzat hartuta:

- Fitxaren buruak erreferentzia bibliografikoa identifikatzeko behar diren datu guztiak eduki behar ditu: egilea, izenburua, argitaratze-lekua, argitaletxea, edizioa, jatorrizko data eta zu erabiltzen ari zaren edizioaren data (hau jatorrizkoa ez denean, jakina). Erreferentzia bibliografikoa Internetetik atera baldin baduzu, Web-gunearen (*Web site*) helbide zehatza eta informazioa lortu duzun eguneko data ere jaso beharko dituzu.
- Parafraasi edo aipuen kasuan, zer orrialdetan agertzen diren zehatz idatzi behar duzu.

- (iii) Ohar-sistemaren malgutasuna: zure oharrek eta fitxek bertan bildu duzun informazioa antolatu eta berrantolatzeko aukera erraza eman behar dizute, beste ohar eta fitxekin *gurutzatzeak* egin ahal izateko.



*"Horrela, esate baterako, Platon eta Tomas Akinokoa izenetara daraman "arima" hitzaren fitxa tematiko bat eduki dezakezu, edota alderantziz. Malgutasuna eta loturak egiteko gaitasuna eskutik helduta doazen bi bertute dira. III*

- (iv) Idazteko tokia utzi: egun fitxa handiagoak erabiltzen dira informazioa gehitzen joateko. Gaur egun, hala ere, konputagailuan jaso daitezke oharrak, eta hor ez dago espazio-arazorik.



*Kartoizko fitxa txiki horiek noizbait ikusiko zenituen; bertan idazteko toki gutxi izaten da eta askotan ez dira oso egokiak testu baten edukiari buruz esan nahi dena adierazteko. Esan bezala, oharrak eta fitxak erabat gauza pertsonalak dira, eta kartoizko irudi klasiko hori ez zaigu iruditzen egokiena denik. Fitxen formatoa neurtu, beraz. Alternatiba gisa, koadernoak, folioak, konputagailu-dokumentuak, etab. erabil ditzakezu. III*

### 3.3. Fitxategiak

Lan on bat egiteko behar-beharrezkoa egingo zaizu lortu duzun informazioaren ordena eta sailkapen egokia. Funtsezko materiala hautatu ahala, beraz, komeni zaizu hura fitxategietan sailkatzea. Fitxategi-mota asko dago (bibliografikoak, irakurketarenak, tematikoak (gaienak), aipuenak, ideienak, izenenak, etab.). Dena den, aipagarrienak ondorengo bostak dira. Zeuk aukeratu egokiena iruditzen zaizuna:

3.3.1. Fitxategi bibliografikoa: zure lanerako interesgarri izan daitekeen edozein liburu edo artikuluren fitxa egingo duzu. Abiapuntu egokia da, irakurri behar duzuna biltzeko eta, geroago, lanaren bibliografia egitean erabiltzeko. Esan dugunez, bibliografiari buruzko fitxek honako eduki hau behar dute:

- a. izenburua
- b. egilea (edo editorea)
- c. argitaletxea
- d. urtea
- e. argitaratze-lekua
- f. aldizkariaren izena (artikulua bada)
- g. bolumenaren zenbakia (bilduma batekoa bada)

3.3.2. Irakurketen fitxategia: irakurtzen duzun testu bakoitzaren fitxek osatzen dute. Fitxa bakoitzean zure lanerako erabilgarria izango den informazioa idatziko duzu, hau da, laburpenak, parafraasiak, kritika pertsonalak, ohar praktikoak, etab.



*Liburua edo artikulua irakurri eta berehala egin fitxa, ez utzi geroko! III*

Irakurketa-fitxek honako hau eduki behar dute gutxienez:

- a. erabiltzen dituzun erreferentzia bibliografikoak
- b. egile eta/edo haren pentsamenduaren joerari buruzko datuak
- c. zeure lanerako irakurri duzun testuaren —edo horren zati baten— laburpena edo aipamen laburra (*erreseina*)
- d. aipu egokiak
- e. testu, egile eta materiari buruzko zure iruzkin pertsonalak
- f. beste erreferentzia bibliografikoekin erlazionaturiko gurutzatzeak



*Lenin-ek fitxa (eta iruzkin) hau egin zion 'F. Ueberweg-en liburu bati V.I.:*

WEBERWEG, F.

*Grundriss der Geschichte der Philosophie*

*Filosofiaren historiaren zirriborroa, Leipzig, 3. liburukia, 1876-1880.*

*Pitxka bat arraroa da liburua. Atalak laburrak dira, doktrinei buruz hitz gutxi batzuekin, baina letra txikian idatzitako azalpen oso luzeekin. Ez dago kapitulu interesgarririk.*

*Iruzkina: Ezin da irakurri! Izenen eta liburuen historia da! Azalpen luzeak beren hiru laurdenetan izenek eta liburuen izenburuek osatzen dituzte. Horiek, gainera, zaharkituta daude.*

*Gurutzatze bibliografikoak: ez. III*

3.3.3. Gaien fitxategia: iturrietan (oharretan, liburuetan, beste fitxetan, etab.) lortzen dugun informazioa bildu eta bateratzeko oso erabilgarriak dira. Goian (buruan) gaia idatziz eta ondoren gaiaz informazioa non bilatu esaten diguten erreferentziak jarriz, erabat praktikoak da horrelako fitxak egitea. Informazioa non, nola eta zergatik bilatu zenuen gogoratzeko balioko dizu fitxa-mota honek. Etengabe eguneratu beharko dituzun fitxak dira. Erraz moldatzeko modukoak dira konputagailuan.



## PRAGMATISMO AMERIKARRA

Dewey, J. 1930: *Individualism, Old and New*, Illinois, Southern Illinois University Press (Etxeko liburutegian).

Rorty, R. 1998: *Forjar nuestro país*, Barcelona, Paülós, 1999, batez ere, 46-55. (Filosofia Fakultatea (UPV/EHU, Sign.: 165.2 R).

etb. III

3.3.4. Aipuen fitxategia: lanerako baliagarri gerta daitezkeen aipuak biltzeko eta berreskuratzeko balio du fitxategi-mota honek.



*Hoberena aipuak guez gai sailkatzea da. Dena den, egileen arabera ere sailka daitezke.* III

Aipuen fitxek gutxienez honako hau eduki behar dute:

- a. egilea
- b. liburua (edo artikulua)
- c. aipatzen denaren kopia zehatza eta itzultzailea (balego)



## MAITASUNA

Dewey, J. 1930: *Individualism, Old and New*, Illinois, Southern Illinois University Press

Platon

*Symposium*

Sinposioa (2004)

Donostia, Jakin

Itzultzailea: Jesus Mari Arrojeria

"Leuntasuna froga ederraren bidez erakusten duela deritzot, ez dabilela gogorraren gainean, bigunaren gainean baizik. Maitasuna leuna delako froga bera erabiliko dugu guk ere. Ez baitabil hurraren gainean ezta garezurren gainean, oso bigunak ez direnak, izaki bigunenetan barrera baizik ibili eta bizi ohí da, izan ere jaitko eta gizakien izaera eta arimetan ezartzen du bizitokia".



(195e, 55) III

3.3.5. Ideien fitxategia: arras pertsonala da, baina oso praktikoa bihurtu daiteke. Gai batean murgildu eta hura ulertu ahala sortzen zaizkizun ideiak (erlazioak, parafraasiak, etab.) idatz ditzakezu fitxa horietan

## IV. Idazketa



### 1. PLANGINTZA

Idazten hasteko unea heldu zaizu. Horretarako, lehenengo urratsa plangintza bat egitea da, bildu duzun materiala nola antolatu eta erabiliko duzun jakiteko. Idazketa-plangintza egiterakoan hiru aldagai hartuko dituzu kontuan: eredu desberdinak, edukiaren balorazioa eta denbora.

 Plangintza ona izan dadin jaso duzun material guztiaren aurreanalisi egiteak erabateko garrantzia du. Horretarako, alegia, lanaren nondik norakoa igartzen hasteko, puntu nagusiak identifikatzeko, loturak ikusteko, etab. giltza-kontzeptuek eta hitzek asko laguntzen dute. 

#### 1.1. Hiru plangintza-eskema

Oro har, hiru dira deskribatu ohi diren plangintza-motak: (1) intuitiboa, desordenatua eta analitikoa, (2) ordenatua, sintetikoa eta ideia garbiak dituen, eta (3) arrisku gutxi hartzen duena (edo joera estandarrekoa).

 Ikusi duzunez, lanaren planifikazioak modu ugari onartzen du. Kontua da, ordea, norberak bere lan egiteko modura egokitu behar duela —edo egokitu beharko lukeela— plangintzaren metodoa. 

- (i) Eskema intuitiboa: intuitibo eta desordenatuak direnentzat, analisisan sintesian baino hobeki defendatzen diren horientzat hain zuzen, *ideiak sorraraz* ditzakeen eskema da egokiena. Hori ideien eta kontzeptuen arteko loturak nabarmentzen dituen teknika elkarkorra da eta, gehienetan, bera da sormenaren iturria. Plangintza-eredu horri jarraitzeko honako pausoak ematea da gakoa:

- Bildu duzun materiala kontsultatu eta lanaren izenburuaren giltza-hitzak kontuan hartu eta gero, idatzi gaiari buruz bururatzen zaizkizun ideia, kontzeptu eta hausnarketak —ordena ez da beharrezkoa—.



epistemologia	ziurtasuna	Platon
EZAGUTZA	Teeteto	
	Descartes	eszeptizismoa
zafantza	egiazkoa	Jenó Maltzurra II

- Ondoren ideia, kontzeptu eta hausnarketa horien arteko erlazioak bilatzen hasi. Horretarako kausa-ondorioa, arazoa-ebazpena, kritika-erantzuna eta horrelako irizpideak erabil ditzakezu.



ziurtasuna - zalantza - Jenio Maltzurra  
 Platon - Descartes - epistemologia  
 Jenio Maltzurra - eszeptizismoa  
 Platon - Teeteto - epistemologia - egiazkoa III

- Harik eta azkenean, lorturiko taldeak (edo bikoteak) modu hierarkikoan antolatutako eskema bat izan arte.



#### EZAGUTZA

1. Ezagutzaren nozioa Platonen Teeteton
2. Eszeptizismoaren arazoa
3. Erantzun kartesiarra
4. Zalantzatik ziurtasunera: Jenio Maltzurraz harantzago
5. Epistemologia modernoa III

- (ii) Eskema sintetikoa: zure pentsamoldea, intuitiboa baino gehiago sintetikoa bada —hau da, zailtasunak badituzu gaiaren ñabarduretan sartzeko, edo, ongi laburbildu arren, zail egiten bazaizu kontzeptuen arteko erlazioak bilatzea—, *ideiak sintetizatzea* komeni zaizu. Har zure materiala, hauta oinarrizko-osagaiak eta ahalegindu idazten *finitsezkoa* dena soilik. Ondoren, idazlana ideia horien arabera erredaktatu.



#### SINTESTAREN EMATZA

#### HORTEK NOLA JORRATU

Otto Neurath ez dator bat Vienako Zirkuluaren tesiekin (1).

Batzuek (2) pragmatista zela diote, batez ere joera hori agertu zenean islatzi zuelako(3).

Horren oinarrizko testuak (4) aztertu eta gero, ez da erraza Neurath sailkatzea (5).

Filosofu berezia da, bere garaikoa erabat, baina ez du lekurik inolako "ismo"tan (6).

Filosofia argia eta zorrotza defendatu zuen, hots, zientifikoa (7).

1. Aurkeztu Vienako Zirkuluaren garaiko panorama filosofikoa.

2. Zeintzuk (erreferentzia bibliografikoak, aipua).k.

3. Pragmatismoaren deskribapen laburra. Neurath pragmatismoari ongi egokitzen zaiola esaten duen tesiaren justifikazioa, baldin balago.


4. Zure analista egiteko erabili dituzun irizpideak argitu: Neurathen oinarrizko gaiak, balorazioak, etab.

5. Neurath Vienako Zirkuluarekin erkatu. Baita pragmatismoarekin ere.

6. Neurathen lanaren hurbileko "ismo" garrantzitsuenak izendatu, eta frogatu Neurath zergatik ez datorren haiekin bat.

7. Azken hori justifikatzeko balio duten Neurathen esaldi eta paragrafoak aztertu. III

- (iii) Eskema "praktikoa": sen onaren "eskolatik" eta kazetarien gomendioetatik harturikoa bada ere, jaramon egitekoa da beste irtenbiderik aurkitzen ez duzunerako. Plangintza-mota horren arabera, beti daude zazpi oinarrizko galdera: (1) zer, (2) nor, (3) noiz, (4) non, (5) nola, (6) zergatik eta (7) zertarako.

 *Nora ezean bazaude jarrai lezaiozu eskema "praktikoa" ri.* ■

### 1.2. Ideiak baloratzen eta definitzen

Halako plangintza-eredu bati jarraitzea gaiaren inguruan analizatzen eta deskribatzen hasteko probetxuzkoa izan badaiteke ere, ez da nahikoa. Hurrengo urratsa gaiari forma ematea da, mamia aztertzea nolabait esateko. Horretarako, hau egin behar izaten da: ideien *balorazioa*, alde batetik, kontzeptuen edo terminoen *definizioa* (edo karakterizazioa edo azalpena) eman, bestetik, eta jasotako guztiaren analisia, azkenik.

- (i) Balorazioa: zure lanaren jite kritikoak tesi, eztabaida edo ikuspunturen bat baloratzea eskatzen du. Horrela zure adostasuna edo desadostasuna erakutsiko duzu, beti zergatia justifikatuz, jakina.



Oro har, baieztapen edo tesi *eztabaidagarrien* kontra egiten dira judizioak. Bestalde, zenbaitetan iritzia besterik ez da eskaintzen. Bi ohitura horiek gainditu egin behar dira:

- Balorazio-eremua zabalagoa da: premisak, justifikazio-estrategiak, etab. hartu beharko lituzke bere baitan (nola esan, baiezia, onar, froga dezakegu X? zenbateraino da zuzena Y?)
- Justifikatu gabeko balio-judizioak ahal bezala ekidin behar dira. ■

- (ii) Definizioa (karakterizazioa, azalpena): lan akademiko batean nahitaezkoa da zure lanean barneratzen dituzun giltza-kontzeptuak edo terminoak definitzea, karakterizatzea edo azaltzea.



*Zerbait ongi definitzea, filosofian, lan baten helburua izan daiteke, baina gehienetan soilik lana ongi egiteko bidea izaten da.* ■



Eskatu dizuten idazlana "Askatasunaren kontzeptzioa Peter Strawsonen obran" bada, "askatasuna" terminoa definitu beharko duzu. Strawsonek askatasuna nola ulertzen duen, nolako kritikak egin zaizkion eta, ausartzen bazara, zuk nola definituko zenukeen. ■

- (iii) Analisia: jaso duzun materiala ez da bata bestearekin "batu" behar. Bildutakoa aurrera egiteko abiapuntua besterik ez da. Eta aurrera egiteko, lehen zirriborroa idazteko, duzun materiala analizatu behar duzu. Testuinguru horretan, ordea, analizatzea ez da deskribapenaren sinonimo hutsa, zerbait gehiago baizik: juzgatzea, erkatzea, baloratzea, kontrastatzea, kritikatzeta, aztertzea, eztabaidatzea... Horretan guztian datza hain zuzen analisia.



Gaia: "Platonen ezagutza kontzeptua Teeteto elkarrizketan".

Egin litekeen analisia: "Erkaketa"

Platonen ezagutzaren ideia argitzeko, hori Descartesenaekin erkatzea izan daiteke aukera bat. Kasu horretan, bien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatzeko, Platonen Teeteto idazkia gain, Descartesena oinarritzeko testuetara ere jo beharko duzu: *Meditazio Metafisikoak* eta *Diskurtsoaren Metodoa*. ■

### 1.3. Denboraren plangintza

Lana emateko epea finkatuta izan ohi duzunez, hoberena hasieratik etapak ongi antolatzea da.



Unibertsitateko programei begira, egungo lauhilabetekoen arabera egutegi (ideal) bat proposatuko dizugu:

- Urria: informazioaren hautaketa
- Azaroa: informazioaren irakurketa eta antolaketa
- Gabonak pasa eta gero: lehenbiziko zirriborroa
- Otsailaren hasieran: lanaren idazketa eta nabarduren errebisioa
- Otsailaren erdian: lana eman !!!

Malgutasuna dela eta, ez da erraza fase bakoitzaren denboraren ehunekoak neurtzea, baina balio beza honako proposamen honek banakuntza-irizpidetzat:

- Aurretiazkoak: gaiaren eta izenburuaren hautaketa, lehenbiziko haztatzeak: %10
- Informazioaren bilketa eta hautaketa: bibliografia, irakurketa, plana, materialaren hautaketa: %40
- Idazketa: informazioaren berrikustea, lehenengo zirriborroa, zirriborroaren berraztertzea, behin betiko idazketa, oharren prestakuntza, azken bibliografia, eranskinak: %40
- Azken berrikustea eta aurkezpena: arreta handiko berrirakurketa eta zuzenketa, ezaugarri formalak, inprimatzea, koadernaketa: %10



*Idazten hasi aurretik, beraz:*

- Zure lanaren gaia arreta handiz analizatu.
- Lana egiteko atondu dituzun fitxa guztiak ongi begiratu.
- Auzi-gako garrantzizkoak seinalatzen hasi.
- Materialei emango diezun ordena pentsatu, behin-behinekoa bada ere.
- Plana idatzi, hori ere oraingoaz behin-behinekoa izango bada ere. !!!

## 2. LEHENENGO ZIRRIBORROA

Testuaren lehen zirriborroa idatzi duzu, barne-kontsumorako egina. Hori lantzen eta moldatzen saiatuko zara, ondoren azken fasean biribilduko duzun idazlanaren egitura eta edukiaren forma osatu arte. Hala ere, hori lortzeko, *gutxienez*, bi zirriborro egin beharko dituzu:

*Zirriborro-1: zeuk zeuretzat idatziko duzuna.*

*Zirriborro-2 (eta ondokoak, baleude): irakurlearentzat idatzitakoa.*


Lehenbiziko zirriborroan zure materialaren emaitzak eta edukiak idatziko dituzu, bertan antolaketa diseinatzen zoazen bitartean. Zure testuak adierazten duenaz ideiarenekin bat lortuko duzu etapa honetan. Bigarren fasean (*Zirriborro-2*), aldiz, irakurlea izan behar duzu gogoan. Bertan edukia ez ezik, estiloa, tonua eta aurkezpena ere zaindu behar dituzu.

### 2.1. Egitura

Lehenengo zirriborroa zuretzat idatziko duzun testua da, zeure ideiak hobeto ezagut eta uler ditzazun. Bertan, zati batzuk aukeratuz eta beste batzuk ezabatuz, materiala sailkatuko duzu. Argudiatzeko estrategia bat ere planifikatu beharko duzu.



Gehienetan lanaren idazketa ez da lineala izaten. Idaztea ez da testua "gehitzea" edo beti "aurretantz" joatea. Atzera ere begiratu behar da, egina dagoena zuzendu, jatorrizko ideia berrikusi, estrategia birpentsatu, etab. Prozedura horri "Feedback prozedura" esaten zaio eta zirkulu batez iradikatzen da:



Horrela, hasieran nahikoa ahula izan ohi den ideia (egitura, estrategia...) gero eta zorrotzago definituko duzu. III

Lan akademiko baten ohiko eskemak oinarritzko hiru zati ditu: sarrera, garapena eta ondorioa.

- (i) Sarrera: lanaren hasierako zatia da eta irakurlea estimulatu behar du irakurtzen jarrai dezan. Oro har, sarrera batek izan behar dituen ezaugarriak hauek dira:
- Kokapena: gai hori, eta ez beste bat, zergatik aukeratu duzun azaldu behar duzu. Aukeratu duzun gaia zergatik den interesgarria esatea komeni da.
  - Justifikazioa: sarrera leku aproposa da lanaren mugak (eta itxaropenak) justifikatzeko.

*Garrantzitsua da sarrera zehatza izatea, ez oso abstraktua, irakurlearen arreta pizteko. III*

- Aurkezpena: sarreran lanaren aurkezpen orokorra egitea komeni da, bai lanaren helburuarena, bai horra iristeko erabiliko duzun bidearena. Horregatik, zein den zure testuaren helburua (tesi batean sakontzea ala auziren bat ikuspuntu berri batetik jorratzea, adibidez) eta baita idazlana nola antolatu duzun ere (kapitulu edo ataletan etorriko dena aurreratuz) adierazi behar duzu.

*Sarreran zure lanaren tesi nagusiak ez dauka begi-bistan egon beharrik. Dena dela, sarreran tesi nagusia jartzea hobesten da. III*

- Azalpena: testuaren irakurketa errazteko azalpenak ere aurrera daitezke.
- Alderdi metodologikoen aipamena: sarrera da, halaber, erabilitako bibliografia, metodologia eta ikuspegia (eskola, joera) komentatzeko lekua.
- Ñabardurak: aurreko guztiekin batera beste faktore batzuk ere komenta daitezke, esate baterako izenburuari buruzkoak, jorratutako autoreei buruzkoak, etab.

*Lana egiterakoan aurkitu dituzun gabetasunak sarreran ez erakutsi; horien ebazpena ondorioetarako utz dezakezu. III*

- (ii) Garapena: lan akademiko baten corpusa edo erdiko zatia da. Bertan garatu behar dituzu zure argudioak. Horretarako erabiliko dituzu: jaso duzun informazioa, hari buruzko analisia (kontrastazioa, eztabaida, erkaketa...), konbentzitzeko teknikak, ikuspegi berriak, etab.

Filosofiako artikulua edo idazlan baten garapenean normalki honako bide hauek jarraitzen dira:

- a. Aukeratutako argudioa kritikatu (edo tesi bat babesteko erabili diren argudio batzuk ez direla egokiak frogatzen ahalegindu).
- b. Tesia edo argudioa kritiken kontra babestu.
- c. Tesia onartzeko arrazoiak eman.
- d. Tesiaz baliatzen diren bi ikusmolde desberdinen aldeko eta kontrako frogak erkatu.
- e. Tesia azaltzeko edo hura onargarriago bihurtzeko balio duten kasuak aztertu.
- f. Tesia onartuz, hark izan ditzakeen ondorio batzuk eztabaidatu.

☞ *Horrez gain, ez ahaztu lanaren corpusak ezin duela batezbestapen dogmatikorik eduki —hau da, justifikatu edo argudiatu gabeko tesirik —, ezta zehaztugaberik ere —kontzienteki, bederen—. Idatzitakoa argudio sendoetan oinarritu behar da edo, alternatiba gisa, lana kokatzen den arloan onarturiko autoritate edo argudioetan. ■*

Testuaren garapenean garrantzi handia du, irakurketa errazten duten eta testuari batasuna eta koherentzia ematen dioten hainbat irizpideri jarraitzeak ere:

- Idatzia argudiatzearen edo lan-hipotesiaren arabera antolatu.
- Lanaren zatien hedapena orekatzen ahalegindu: kapituluak, atalak, paragrafoak....
- Anekdotikoa eta azalekoa saihestu.
- Kapituluari eta atal nagusiei, gutxienez, izena eman.
- Atal eta azpiatal bakoitza zenbatu.

(iii) Ondorioa(k): lan akademiko batean, *corpusean* edo garapenean aurkeztutako argudioen ondorioak esplizituki agertu behar dira. Ondorioetan honako hau erakuts daiteke:

- a. Iorturiko emaitzak
- b. *ex professo* erabili ez dituzun ezaugarri garrantzitsuak: joera edo mugimendu filosofiko batzuk, kontzeptuak, egileak, etab.
- c. ezaugarri positiboak: lanaren erabilgarritasuna, interesa, berritasuna, etab.
- d. lanaren jite irekia: interpretazioen aurrean irekia dela erakutsiz, lanak sor ditzakeen ildo berriak, beste gaietara erlazioak, etab.
- e. batzuetan irakurlea gai horri buruz irakurtzen jarraitzera sustatzen duen klabe bat aipatuz ere buka daiteke lana

Hori guztia, jakina, sorta bat da, eta hortik dena hartu beharrik ez dago. Alabaina, hiru dira ohiko moduak lan batekin amaitzeko:

- Laburpen-ondorioa: horrela amaitzea da modurik sinpleena eta ohikoena. Azpimarra daitezkeen ezaugarrien bitartez lanaren edukia laburtzen da.
- Proposamen-ondorioa: horrelako amaieretan harrezkero jorra daitezkeen ideien proposamenak egiten dira.
- Ondorio harrigarria: irakurlea paradoxa edo espero ez zuen ondorio batekin guztiz harritu nahi du amaiera honek.



"Sarrera, garapena, ondorioak" egiturari buruz eman ditugun irizpideei jarraituta lan bat zenbat hobetu daitekeen ohartzeko, konpara itzazu eranskin moduan gehitu ditugun bi idazlanak, bata ikasle batek eta bestea beste batek idatzia. Biak idazlan akademikotzat har ditzakegun arren, soilik bigarrenak jarraitzen die hemengo zenbait aholkuri eta horregatik, soilik horregatik, bigarrena testu hobea dela esan daiteke. III

## 2.2. Erredakzioa

Egitura garrantzitsua bada, betelana ez da gutxiago. Alegia, testuari forma egokia ematen saiatuaz, arretaz idatzi behar da. Hitzak, esaldiak, paragrafoak, horien arteko loturak eta zenbait gomendio orokor tentuz aztertu, aukeratu eta aintzat hartu beharrekoak dira.

- (i) Lexikoa. Lan-motaren arabera da: teknikoa, jendarteratzekoa, etab. Filosofia-lanari dagokionez behe-mailakoa, maila ertainekoa edo goi-mailakoa izan daiteke. Hala ere, unibertsitateko idazlan baterako honako arau hauek gomendatzen dizkizugu:

- Ulertzen dituzun terminoak erabili, zehatzenetatik abiatu eta abstraktuak soilik beharrezkoak direnean jarri.
- Termino edo kontzeptu berri bat sartzerakoan, hura zehatz-mehatz definitu. Ezin baduzu hori egin, horren ezaugarri nagusiak eman (*karakterizazioa*) eta zein zentzutan erabiliko duzun azaldu.



*Filosofiako saio edo idazlanetan termino anbiguorik ez erabili, norberak testua bere erara ulertzeko arriskua baitago. III*

- Hobe da termino bakuna parafraasia baino.
- Adigai irudizkoak saihestu eta hizkuntza erreferentzian idazten ahalegindu zaitez. Horrek testu argiagoa egiten lagunduko dizu. Jakina, zeure burua seguru ikusten baduzu, analogiak eta metaforak erabil daitezke, baina neurritz, ez gehiegi.
- Alferreko barbarik ez idatzi —sobera dauden adjektiboak, izenlagunak edo hitz-jokoak, adibidez—.
- Euskaraz onartuta dauden atzerriko izen propioak soilik itzultzen dira; besteak utzi bere horretan.



*Adibidez, "Sokrates" idazten da, baina ez "Koldo Wittgenstein", "Benito Spinoza" edo "Kepa Strawson". III*

- (ii) Esaldiak. Harmonia eta ordena behar-beharrezkoak dira. Hori lortzeko, esaldiak naturaltasun osoz idazten ahalegindu behar duzu:

- Batez ere mendeko perpausak ez dituzten esaldi laburrei eman bidea.




*Esaldi luzeak gehiegi ez erabili. Eta, erabiltzekotan, laburrekin txandakatu. III*

- Azpimarratu nahi duzuna aditz sintagmaren aurrean jarri.




Platon da filosofoa	=	Filosofoa da Platon
↓		↓
(ez Homero)		(ez politikaria) III

- Esaldi baloratiboak eta deskriptiboak txandakatu.
- Gramatika eta konkordantziaz jabetu (pluralak, ergatiboak, etab.).
- Esaldien ordena logikoa eta argitasuna zaindu.
- Puntuazioari begiratu

 *Puntuazio egokia zein den jakiteko komeni da, behin testua idatzi ondoren, hura arnasa kontrolatuz irakurtzea. Horrek non eta zenbat gelditu jakiten lagunduko dizu. ■*

- Esaldi baten (edo hitz baten) adiera indartzeko erabili ohi diren puntuazio-markak (harridura-marka, galdera-marka...) eta bestelako baliabideak (etzanak, belztuak...) ahalik eta gutxien erabili.

 *Harridura-markek argudioari ez diote ezer gehitzen. Alderantziz, testua astun bihur dezakete. ■*

- Lokailuak: testuaren batasunak esaldiak bakaturik ez agertzea eskatzen du. Zentzu horretan, lokailuen bitartez testuaren jarraitasuna bermatzen da. Lokailuak mota askotakoak daude: esapide konjuntiboak, izenlagunak, juntagai-luak, loturako esaldiak, etab.

(iii) Paragrafoak. Paragrafoa esaldi-multzo bat da, argudio, auzi edo gai baten arabera baturiko esaldi-multzoa, alegia. Oro har, ideia nagusi bat eta beste bigarren batzuk ditu. Paragrafoa egoki idazteko gutxienez honako hau behar da:

- Idazteke duzuna aurretik ongi pentsatu.
- Garrantzirik gabeko ñabardurak ez sartu.
- Termino eta esaldi egokiak ongi aukeratu —hiztegiak behar beste erabili—.
- Nahitaezkoa ez bada behintzat, ahalegin zaitez substantiboak, adjektiboak, izenlagunak eta aditzak gehiegi ez errepikatzen.

Lau paragrafo-mota bereiz ditzakegu:

- Argudio-paragrafoa: ideia edo tesi baten aldeko (edo kontrako) arrazoiak, judizioak eta irizpideak erabiltzen dira.
- Definizio-paragrafoa: zuk emandako edo aukeratutako zentzuaren arabera definitu, karakterizatu edo azaldutako terminoak sartzeko erabiltzen da.



*Aukera on bat da, testu formaletan, definizioak definizio direla testuan jartzea:  
“[...] norabide honetan X honela definitzen dut:*

*DEF: X da Y*

*Definizio honen arabera [...]. ■*

- Adibideen paragrafoa: argudio edo ideia bat argitzeko, hura adibide zehatzekin indartzen da.
- Erkaketa-paragrafoa: kontrasta dezazun edo analogiak egin ditzazun, bi tesi, argudio, judizio, ikuspegi edo ikuspuntu jartzen dituzu bata bestearen aurrean.

(iv) Gomendio orokorrak. Lehendabiziko zirriborroaren testuak itxura gutxi gorabehera landua izan dezan, hona hemen hainbat gomendio:


- Lana oso luzea bada, noizbelunka berriz idatzi zein den abiapuntuaren hipotesia. Baliabide eraginkorra da, horrekin jarraitasun-itxura ematen baitiozu lanari.

- Idazlana egitean, prozesuak ez dio zertan jarraiturik azkenean izango duen ordenari, edozein atal edo kapitulutik has zaitezke idazten eta, ondoren, batetik bestera saltoka ibili.
- Oro har, ez da singularreko lehenbiziko pertsonan idazten (uste dut...), plural maiestatikoa (edo plural *modestiae*) baizik (uste dugu...). Euskaraz inpersonala pixka bat behartua da (uste da...).

### 2.3. Ohiko oztopoak

Esan bezala, idazlanaren fase honetan lortzen ari zarena oraindik pribatua da, alegia oraindik ez zara irakurle batentzat ari. Dena dela, egiten ari zarena lehen zirriborroa besterik ez bada ere, hainbat oztopo gainditu beharko dituzu:


- (i) *Paper zuriaren aurrean*: idazten hasteko uneak mito zahar bat dakar, paralisia-rena alegia. Normalki, paralisi horren arrazoia bat-batean perfekzioa lortu nahia izaten da. Eta hasierako zirriborroa perfektua egin nahi izateak ez du zentzu handirik; errore nabaria da. Hori bai, ahalegindu arin eta argi idazten. Ondorengo zirriborroetan izango duzu testua biribildu eta mamian sakontzeko astia.

 Ez pentsatu idazten dituzun lehenengo hitzek erabat aseko zaituztenik. Ez bilatu horrelakorik. Askoz ere praktikoagoa da eman ditugun aholkuei jarraitzea eta, berehala, lehenbiziko paragrafoa idaztea. Ikusiko duzu nola horrela gutxiago kostako zaizun horik aurrera egitea. <sup>III</sup>

- (ii) *Larrialdiak*: ez da arraroa erdibidean gelditzea aurrera joan ezinik. Erabateko blokeoa ere gerta dakizuke, batik bat atal bat bukatzen duzunean eta hurrengoari nola lotu ez dakizunean. Lehenengo irtenbidea atsedean hartzea da, testutik gogoz eta buruz urrutiratzea. Horrek ez badu eraginik, ahalegindu arazoa norbaitekin eztabaidatzen —irakasleren bat, ikaskideren bat—, horiek korapiloa askatzeko irtenbideak bilatu eta aurkitu baino gehiago beharbada galderak egingo dizkizute eta. Ezer ez bada aurreratzen, zuzenean irakaslearekin mintzatu. Irakasle ona bada, lagunduko dizu.

- (iii) *Plangintza ez da uste zenuen bezain egokia*: bat-batean plangintza ezin duzula bete ohartu zara. Egin zenuen plangintza ez da uste zenuen bezain egokia. Zerk eragin du plangintza txarra izan dadin? Kausa asko egon daitezke, baina hauek dira arruntenak:

- Irakurketa-akatsak: batzuetan, plangintza txar baten kausa irakurketa oker edo pobreetan egon daiteke, edo bestela plangintza eskasean. Irakurketa-hutsu-neak badituzu —irakurri behar zenuena irakurri ez duzulako—, berreskura itzazu irakurketa horiek.
- Denbora: askotan gaizki neurtzen da denbora. Denbora neurtzen praktikarekin ikasten da.

 Dena dela, denbora falta baduzu hobe da idazten jarraitzea eta aurrerago irakurtzeke dituzun erreferentziak bazterretan markatzea. Adibidez, "Kusm 1962: 54", "Platonen Ideien teoria-rekin erkatu", etab. <sup>III</sup>

- Materiala antolatzeko sistema desegokia: behin eta berriro ohar, fitxa eta aipuen bila ari bazara, fitxategiak eta materiala antolatzeko erabili duzun sistema okerra da. Hurrengorako adi, beraz, antolakuntza okerrak "astolana" ekartzen baitu.

(iv) *Desbideratu egin zara*: bi izan daitezke desbideratzeko arrazoi nagusiak:

- Argudioa ahuldu zaizu: ikusten baduzu zure argudioa agortzen ari dela, edo gaizki dagoela, eta ezin duzula hura gehiago babestu, horretarako ez frogarik ez argumenturik ezta autoritaterik ere ez duzulako. Zer egin? Arruntena, dituen puntu ahulak estaliz, argudioa defendatzen jarraitzea izaten da. Baina hori ez da estrategiarik egokiena. Horrelakoetan hobe da bi atzerapauso egitea eta argudioa birplanteatzea.
- Argudiaketaren haria galtzen ari zara: arazo hori arinkiago konpon daiteke. Lehenengo, desbideratu zinen argudioaren puntura itzuli eta harian sartu berriro. Horretako, giltza-kontzeptuak eta giltza-ideiak berriro aztertu.



Zure gaia *ezagutzaren* ingurukoa bada eta atal batean azken kontzeptu hori "uste egiaz justifikatua" gisa definitu baduzu, beharbada aurrerago egia kontzeptuan murgilduko zara, eta horri buruzko teoriez hausnartuko duzu. Baina horrek epistemologiaz harantzago joatea suposatuko luke, ontologian edo hizkuntzaren filosofian sartzeko. Eta hori ez zen hasieran zenuen asmoa. Beraz, itzuli harira. ■

(v) *Lanean aritzea saihesten duzu*: lan akademiko on bat egitea neketsua da eta ez bazaude ohituta, hura saihesteko joera izan dezakezu. Hemen diziiplina arras garrantzizkoa da. Har itzazu atsedenaldiak, baina neurtuz; lana gehiegi ez moztu, kontzentrazioa eta horrelako lanetan behar den tentsioa kenduko baitizkizu. Estrategiaz aparte, hoberena kasu hauetan *jarraitasuna* eta diziiplina dira, esan bezala.

### 3. ONDORENGO ZIRRIBORROAK

Primeran; esku artean duzu jada lehenbiziko zirriborroa. Ez zaitu guztiz asetzen, ezta gutxiago ere, baina zerbait behintzat idatzi duzu. Orain, ordea, beste pauso bat eman behar duzu: biraketa, zure buruarentzat idaztetik besteontzat idaztera igarotzeko biraketa, hain zuzen. Orain arreta handiagoa jarriko diezu beste kontu batzuei: lanak irakurlea aseko ote duen, idazketa garbia eta arina ote den, ideia nagusiak ongi azaltzen ote dituzun, etab.



*Bigarren zirriborroa idazten hasi aurretik, beharbada, komeni da lanarekiko urruntasun pixka bat hartzea, egun bat edo bi. Lanera itzultzean zure ikuspuntuak kritikagoak eta orekatuagoak direla oharuko zara. ■*

#### 3.1. Estilo filosofikoa 1: orokorra

Ohikoa da filosofia elkarrizketa moduan ulertzea, baldintza batzuen arabera gauzatzen den elkarrizketa moduan ulertzea, alegia. Ideiak proposatzea, suposatutzat ematen dela argi uztea, kritikak kontuan hartzea..., baldintza horien pean egiten da filosofia.




Filosofia ganoraz egiteko Wittgensteinen aipua gogora dezakegu: "horrela da filosofoek elkar agurtu beharko luketen modua: behar beste denbora hartu!" ■

Horiek horrela, guk honako baldintza hauek zerrendatu ditugu, gure ustez, estilo filosofikoaren bereizgarri direlakoan:

- (i) Abiapuntua: lan akademiko guztietan suposatzen da zerbait. Alegia, beti dago "emantzat" uzten den zerbait, lanaren eremuan eztabaidatuko ez dena edo zalantzan jarriko ez dena. Horiek dira argudioaren premisak edo postulatuak.

Horregatik, garrantzi handikoa da esplizituki jartzea zeintzuk diren suposatutzat ematen diren ideiak. Alde batetik, irakurleak ez du jakin beharrik zeintzuk diren zuk ontzat ematen dituzun ideiak eta, bestetik, haiek eskaintzen dute zure argudioaren abiapuntua eta oinarria.


 Premisak eta postulatuak justifikatzen ez direnez, oro har onartzen dena (edo ukatzea "garestia" dena) jarri behar da abiapuntuan. <sup>III</sup>

- (ii) Originaltasuna: lan akademikoetan zerbait "berria" defendatzen da. Inolaz ere originala ez den lan akademiko batek ez du batere balio. Alegia, lan akademiko batek berritasunen bat eskaini behar du, bai defenditzen den ideian bai hura defendatzeko moduan. Gauza berri hori, jakina, gaiak erlazionatzeko modua izan daiteke, lana argi aurkezteko zure gaitasuna edo, zergatik ez, zerbait substantibo (baina, jakina, azken hori ez da arruntena).
- (iii) Justifikazioen beharra: ez utzi zure ideiarik defendatu gabe. Zure argudioak era-kutsi, beraz, kontuan izanik, datorren atalean ikusiko den moduan, argudioa ez dela egilearen iritzien txosten hutsa, ezta bertan eztabaidaturiko filosofoen iritzien bilduma ere. Lan akademikoetan ideia oro hipotesi dira eta haiek defendatu behar dituzu, horretarako dituzun arrazoirik sendoenak erabiliz.



EZ → Nire ikuspuntua I da.  
BAI → Nire ikuspuntua I da, eta beraz iste dut zeren ... (argudioa).

EZ → Quinek Q dio.  
BAI → Quinek Q dio; haatik, fisikako F saiok Q mantendu ezin dela frogatu du. <sup>III</sup>

 Oro har, testu batek ez dio behin betiko soluziorik ematen arazo bati filosofian; ez du erantzuten BAI edo EZ, "eta hori da dena". Zaila da filosofiako testu on bat aurkitzea horrelako erantzun batekin. <sup>III</sup>


- (iv) Auresuposaketa: askotan hipotesi batzuen egitasuna zalantza gabekoa dela uste dugu. Kontuz horrelako usteekin. Filosofian zalantza gabekoak diruditen hainbat ideiak argumentua behar izaten dute. Zentzu honetan, gure arerriorik indartsuena bihur daiteke konfiantza.




Hain zuzen, epistemologian "errorearen teoria" garatu da, besteak beste, sen onaren arabera ontzat ematen ditugun hainbat ideiaz ("lore hau gorria da", adibidez) fida ez gaitzean. Teoria horren arabera koloreak, usainak eta mota horretako gainerako propietateak ez daude munduan; subjektuan baizik. Beraz, epistemologiaren alorrean lan bat egitera bazoaz ezin duzu emantzat jo objektuek koloreak badituztenik (propietate bigarrenen teoria subjektibistak alde batera uzten dituzula esplizituki esan gabe ez behintzat). <sup>III</sup>

- (v) Kritika: filosofian ohikoa da kritika. Beste filosofo edo joera baten ideiak edo argudioak eztabaidatzeko, ordea, horiek ongi ulertu behar izaten dira. Zentzu horretan, filosofiak goi mailako zehaztasuna behar du; ez da konformatzen ideia orokorrak aurkeztearekin. Ikuspegi edo tesi baten aurka egin nahi baduzu, beraz, hura zein den argi utzi beharko duzu. Horretarako, horren argudioak eta postulu nagusiak "irudikatu" behar dituzu izan ditzakeen ahuleziak identifikatzeko. Nola?

- Ontzat eman duena aztertu (premisak, postulatuak...).
- Argudioaren forma egokia den ala ez aztertu.
- Argudioaren aplikazioa egoki egin duen aztertu.
- Defendatzen duen teoriaren kontrako adibideak bilatu.
- Haren teoriak ekidin beharreko ondorioak ba ote duen ikusi.
- Sartu dituen definizio eta karakterizazioetan arreta jarri (lan teknikoak bada, logikan adibidez, erregelen aplikazioa begiratu).
- Ondorio berdineren iristeko bide errazagorik ez ote dagoen begiratu.

 *Kritikatzena zozena alde aurretik ongi ulertzea komeni zaizu, bestela zuk eraikitako "interpretazio mamuen" aurka jotzeko arriskuan egon zaitezke. III*

- (vi) Objekzio posibleak: defendatzen ari zaren ideiaaren aurka, edo eraikitzen ari zaren argudioaren aurka, beste norbaitek kritikaren bat egin dezakeela edo egin izan duela badakizu, orduan hari aurrea hartu behar diozu.
- (vii) Beste helburu batzuk: filosofiako hainbat lanek beste helburu batzuk ere izan ditzakete, guztiak zilegi direnak. Besteak beste:
  - a. Auziak argitu.
  - b. Postulatuak kolokan jarri.
  - c. Galdera berriak sortu.

 *Batzuetan, testuinguruaren arabera, galderak sortzea (erantzunik eman gabe) ez da testuaren akatsa, bertutea baizik. III*


### 3.2. Estilo filosofikoa 2: analitikoa

Begira iezaiozu orain zirriborroaren *formari*. Konkretuki *estiloari* eta *tonuari*: egokiak al dira? koherenteak? Izan ere, lan akademikoaren aspektu estilistikoak zaintzea berebizikoa da lan bat atontzeko orduan.

Estilo filosofikoa aipatzen dugunean, jakina, ez gara ari, apaingarriez (marrakiz, apaingura, enkuadernatze eta abarrez), filosofia egiteko modurik egokienaz baizik. Alegia, filosofia egiteko modu asko da, baina guk, formazio-garaiko idazlan akademikoetarako, "estilo analitikoa" gomendatzen dugu. Zergatik? Eztabaidetan aurrera egiteko eta auziak zorrotz aztertzeko bitartekorik emankorrenak eskaintzen dituelako, gure ustez.


Zirriborroa txukuntzeko baliagarri izango zaizkizulakoan, hona hemen filosofiako idazlan bat prestatzeko hainbat gomendio:

- (i) Ezaugarri orokorrak: filosofia analitikoko testu bati, *ona* izan dadin, gutxieneko ezaugarri hauek edukitzea komeni zaio:
  - a. apaltasuna
  - b. tesia zehatza izatea
  - c. garbitasuna eta erraztasuna
  - d. arrazoi hoberenen erabilera

 *Testua gehiegizko informazioaz kargatzea ez da ona. Ez dago dakizun dena erakutsi beharrik; nahikoa da kasu bakoitzean garrantzitsuena dena jartzea. Kontrolik gabeko erudizio-erakusketek zaildu egiten dute irakurketa eta argudioari ez diote onik egiten. III*

(ii) Prosa argia: zenbat eta argiagoa prosa, orduan eta errazagoa argudioari jarraitzea. Horregatik:

- a. Estilo literarioaz ez abusatu.
- b. Ideia berdina azaltzeko modurik sinpleena hobetsi.
- c. Ideien ordena errespetatu.
- d. Puntuazioak eta saltoak argudioaren arabera erabili.
- e. Ideia bigarrenak oin-oharretara pasa.
- f. Erreferentziak, ahal beste, testu nagusitik kendu.

 *Ituntasuna eta sakontasuna ez dira gauza bera. Beren idazkera dela eta, ospe onik ez duten filosofo handi batzuk —Hegel, Heidegger...—, ez dira filosofo handiak "ilun" idazten zutelako; alderantziz baizik. Garrantzizkoak dira, nahiz eta, tamalez, "ilun" idatzi. III*

(iii) Egitura argia: irakurleak garbi ikusi behar du zure lanaren egitura. Hori lortzeko, hau egin dezakezu:

- Lokailuak erabili [ikus, 2.3. (iii) puntua].
- Noizbehinka gogoratu irakurleari egin duzuna eta egingo duzuna.




*"Orain arte hau defendatu dugu: ...", "Hemendik aurrera, ordea, honako hau argudiatuko dugu: ...", "hasi gara esaten...", "hau kritikatu baino lehenago...", "aurreko atalak honakoa esan nahi du", "honezkero honetaz eta horretaz mintzatuko gara", etab.; III*

- Garbi utzi noiz ari zaren zeure ikuspuntu propioa erakusten eta noiz beste batzuenaz eztabaidatzen. Horretarako erreferentziak edo aipuak erabili ditzakezu. Irakurleak bi alde horiek nahastea ekidin behar da.

(iv) Laburtasuna: ideia nagusia ahal duzun laburren azaldu behar duzu baina, jakina, funtsezko ezer galdu gabe. Hori garrantzi handikoa da filosofia analitikoan.

- Labor azaldu: idaztean, irakurlea auzi baten aurrean jarri behar duzu. Horretarako garrantzitsua da auzia ongi mugatzea. Beraz, auzia ukitzen ez duen ezerk ez du testuan agertu beharrik.

 *Hobe da tesi bat edo bi aukeratzea eta horiek sakon aztertzea, tesi asko azaltzeko baino. III*

- Dena agerrarazi: tesi bat zedarritu duzunean kontua ez da hura esaldi bakar batean aurkeztea. Tesi hori azaldu egin behar da, adibideak eman, argudioak lotu... Funtsezkoa den guztia azaltzeak irakurketa argitzen du. Izan ere, terminoak ez badira definitzen, edo argudioak ez badira behar bezala aurkezten, irakurleak ez du ongi ulertuko zer esan nahi dugun.

Bestalde, zirriborroan idazlanak izan behar duen hitz- edo orrialde-kopurua gainditu baduzu, honako hau egin dezakezu:

- a. Beharrezkoak ez diren errepikapenak eta egokiak ez diren adierazpenak ezabatu.
- b. Adierazpen eta adibide erredundanteak kendu.
- c. Espazio asko betetzen duten frogak eta adibideak azalpen laburrekin ordezkatu.
- d. Azalpen, suposizio teoriko, deskribapen, aurretiazko informazio eta abarren ordezkari erreferentzia bibliografikoak jarri.

Eta, alderantziz, zirriborroa laburregi ateratzen ari bazaizu, hau egin dezakezu:

- a. Begiratu ea landu ez duzun, edo gehiago lant dezakezun, ideiarik badagoen.
- b. Behatu adibideren bat falta denetz.
- c. Oinarritzko informaziorik behar ote den begiratu.
- d. Ikusi ea argitasuna gehitu behar duzun ala puntuen arteko erlazioak hobeto azal ditzakezun.

(v) Definizioak eta adibideak erabili:

- Filosofian tesi eta hipotesi abstraktuak defendatzen dira, maiz ulertzeko zailak direnak. Horien ulermena errazteko adibideak erabili behar dira.
- Filosofian arrunta da eguneroko bizitzan erabiltzen diren hitzak erabiltzea, baina beste esanahi bat emanez. Hortaz, hori egiten baduzu, garbi utzi behar diozu irakurleari hitz bakoitzari zein esanahi ematen diozun. Horretarako dira definizioak.



"Fenomeno" terminoa, adibidez, termino arrunta da, egunero erabil dezakezuna kalean. Dena dela, Kantek eman zion zentzuan erabili nahi baduzu, erabilera horrek argi geratu beharko luke. Kontu bera ibili "substantzia", "masa", eta antzeko terminoekin. "Konduktismo", berriz, ez da termino arrunta, tekniko baizik. Dena dela, horrek ere, duen izaera teknikoagatik, hain zuzen, bere definizioa, karakterizazioa edo azalpena beharko luke. ■

- Lexikoa nahierara ez aldatu: hasieran zerbait X esan badiozu, jarraitu horrela egiten testu osoan zehar.



Adibidez, hasiera batean "arima" hitza idatzi baduzu zerbait adierazteko, ondoren ez sartu "gogoa" gauza bera adierazteko. Lexikoaren koherentzia beharrezkoa da filosofian, askotan hitzegiaren aldaketak esanahiaren aldaketa baitakar. ■

- Erabiliko dituzun hitzek esanahi filosofiko zehatza eduki beharko dute.



Termino teknikoak soilik behar direnean sartu eta haien adiera zehatza errespetatu. ■

### 3.3. Errepasoa

Zirriborroa lan itxura hartzen ari da.



Idazlana aurrera doan heinean, atzean geratzen dira zirriborroetako hainbat zati, galbahetik irazi ez direnak. Ezaba itzazu. Badakigu hori zaila dela, gogorra baita horrenbeste lan, denbora eta ardura kendu dizun zerbait tiraderan gordetzea. Baina argudioari ezin zaiola egokitu ulertu baduzu, edo zure ideia nagusiarekiko lotura esturik ez duela ikusi baduzu, hoberena zati hori zakarrontzira botatzea edo, bestela, hurrengo lan baterako gordetzea da. ■

Dena dela, bide onean zoazela bermatu behar duzu. Horrefarako, komeni da noizean behin zeure buruari hainbat galdera egitea: *auto-galderak* deritzena. Honako eskema hau proposatzen dizugu:

(i) Edukia

1. Zirriborroak irakurlea konbentzitzen du?
  - 1.1. Luzeegia ala laburregia da?
  - 1.2. Edukiak proposaturiko izenburu eta auziei erantzuten die?
    - 1.2.1. Guztiari erantzuten dio ala partziala da?
    - 1.2.2. Eskatzen ez ziren gauzei erantzuten die?
  - 1.3. Oharretan eta fitxetan bilduriko gauza garrantzitsu guztiak islatzen ditu?
  - 1.4. Ongi egituratuta dago argudiatzea?
    - 1.4.1. Elkarrekin ongi erlazionatzen dira zati guztiak?
    - 1.4.2. Orekatuta dago argudioaren haria?
  - 1.5. Eraginkorrak dira sarrera eta ondorioa?

(ii) Forma

1. Egokiro aurkeztu duzu lana?
  - 1.1. Zehatzak eta zorrotzak dira adierazpenak?
  - 1.2. Tonua eta tankera aproposak eta koherenteak dira?



*Esan bezala, idazketa-prozesuak irauten duen bitartean, bai lehen zirriborroan bai ondorengoetan, auto-galderak egitea komeni da. ■*

## V. Aurkezpena

Gaia jorratu duzu eta azken bertsioa, aurkeztuko duzuna, idaztera zoaz. Idazlanaren azken fasean sartu zara, beraz. Une horretatik aurrera idazlanean zenbait kontu aldatzeko aukera duzu, hala nola estiloan eta beste ñabardura batzuetan. Ez, aldiz, funtsezko auzietan. Zirriborrotik idazlanera jauzia egin orduko funtsezko auzi guztiak erabakita egon behar dira. Beraz, hemendik aurrera lanaren formari erreparatu behar diozu gehienbat. Horrek, behar-bada, ez zaitu gehiegi arduratzen, auzi formalak zuretzat garrantzi gutxikoak direlako. Dena dela, "apainduren" edo "ñabarduren" gainean egon beharra ez da bigarren mailako ardura bat; aurkezpen egokia erabakigarria izan daiteke lan akademiko batek duen harreran eta, jakina, kalifikazioan. Izan ere, aurkezpen on batek, normalki, lan on bat esan nahi du, ikasleak akademiako estandarrak dominatzen dituen seinale baita.



Irakasleak, editore batek edo aldizkariak, bakoitzak bere arauak ote dituen jakiteak garrantzi handia du. Ahalegindu informazio hori lortzen, bai irakaslearekin edo editorearekin hitz eginda, bai aldizkari guztietan dagoen *Egileentzako arauak* atalean begiratuta. ■

Demagun, dena den, lana bukatutzat eman duzula eta aurkezpen egokienaren bila ari zarela.

Lehenengo gauza, idazlana atontzeko seguru asko konputagailua erabiliko duzunez, haren abantailak ezagutu eta aprobetxatu egin behar dira:

- zuzenketak eta berridazketak egiteko (ortografia, gramatika...)
- testua antolatzeko eta txukuntzeko (moztu eta erantsi, izenburuak jarri, orrialdeak zenbatu...)
- baliabide teknikoak erabiltzeko (sinonimoak, hitzen zenbatzailea, taulak, irudiak...)




Azken zirriborroa idatzi eta gero, hura inprimatu eta material horren gainean egin ukituak. Lan osoa begi bistan izatea komeni zaizu idazlanaren koherentzia eta egitura egokia kontrolatzeko. ■

Zuzentasun-irizpide objektibo onartuak badaudenez, horiei jarraitzeko aholkatzen dizugu. Dena dela, lan akademiko baten aurkezpenean kontuan izan behar dituzun puntuak hauek dira:


- a. ohiko formatoa
- b. oin-oharrak
- c. aipuak
- d. erreferentzia bibliografikoak
- e. bibliografia

- f. izenburua eta atalkako goiburuak
- g. laburpena
- h. giltza-hitzak
- i. beste zenbait

 *Dena dela, ondoren emango dizkizugun aholkuak estandarrak dira, ohikoenak. Badira idazlanak aurkezteko beste modu batzuk, aipuak sartzeko hamaika era, bibliografia emateko bide anitz, etab. Hots, hainbat aukera daude eta guk batzuk erakutsiko dizkizugu, kontuan izanik, horietatik egokiena deritzaguna aholkatuko dizugula.* <sup>III</sup>

## 1. OHIKO FORMATOA

Idazten hasi baino lehen, letra-mota aukeratuko duzu. Gustuaren arabera egin daiteke, baina, dena dela, gehien erabiltzen diren letra-moten artean *Times*, *Garamond* eta *Times New Roman* daude. Tamainari dagokionez, arruntena 12 da.

 *Letra-mota ahalik eta gutxien aldatu behar zenuke. Aintzat hartu, halere, aipuek, oin-oharrek eta halakoek letra txikixeagoa eskatzen dutela. Baina hortik aurrera lan guztia letra-tipo eta tamaina berarekin idazteko joerari eutsi behar zaio (baita izenburuetan ere).* <sup>III</sup>


- (i) Paragrafoak: luzeegiak izatea ez da ez praktikoa ezta itxurosoa ere, ideia zuzen eta zehatz aurkeztea komeni baita.
  - a. paragrafo guztiak justifikatu
  - b. izenburuaren hurrengo paragrafoa ez justifikatu
  - c. lerro artean tarte eta erdi utzi
  - d. paragrafotik paragrafora bi tarte utzi
- (ii) Bazterrak: garrantzi handikoa da lanaren orrialde bakoitzean irakurleak, irakurri bezain laster, bere iruzkinak idazteko tokia izatea, hau da, eskuinean eta ezkerrean toki nahikoa uztea (2-3 zentimetro).
- (iii) Orriak: normalki orria alde bakarretik inprimatzen da. Lana oso luzea bada bi aldeak inprima daitezke. Dena dela, orriak zenbatzea beti komeni da, bai aurkezteko eta bai lanketarako diren zirriborroetan. Denbora asko aurreztu dezake atalak bilatzean edo orriak ordenatzean. Lehen zenbakia, sarrera edo lehen atalarekin jartzen da. Lehen orria, zenbakirik gabe joan daiteke. Zenbakia goian edo behean jar daiteke, baina erdian baino hobe da eskuinean jartzea irakurleak errazago aurkitzen baitu.

## 2. OIN-OHARRAK

Orrialdearen behealdean agertzen diren oharrak dira, eta normalki zenbakien bidez ordenatuta ageri dira.

Oin-oharren helburu orokorrak hiru hauetan laburbil ditzakegu:


- testua gehiegi ez zamatzea
- zeharkako argudio edo adibideak jartzea
- erreferentzia bibliografiko edo aipamenak sartzeta

 *Ohar gehiegi ez sartu; luzeegiak ere ez egin.* <sup>III</sup>

Testu barruan, oharra bere *deiaren* bidez identifikatuko duzu. Deia zenbakitxo bat izaten da eta horren erreferentzia orrialdearen beheko aldean agertuko zaizu.

Dena dela, oharrak sartzeko beste modu bat ere bada:

- *Amaierako oharrak*: oinaldeko oharren ordezkioak dira eta testu osoaren atzeko aldean, bibliografiaren aurretik, idazten dira. Informazio eta iruzkin luzeagoak egiteko aukera emango dizute.


 *Ohar asko direnean irakurketa zailtzen du oharrak amaieran jartzeak. Horregatik oin-oharrak gomendatzen ditugu.* <sup>III</sup>

### 3. AIPUAK


Aipua sartzea beste egileren baten liburuko pasarte garrantzitsu bat hitzez hitz kopiatzea da. Hori egiterakoan, esan beharrik ez dago, argi erakutsi behar da beste baten hitzak direla. Alegia, zure ideiak eta aipatzen dituzunak bereizi behar dituzu, nahasmena ekiditeko eta argudioaren ulermena errazteko.

Aipua sartzeko bi modu daude, laburrak edo luzeak diren:


- Diakritikoak erabiliz: aipua laburra bada, hura diakritikoen, “ ”, artean sartu eta aparte ez idatzi (hau da, testuaren jarraitasuna moztu beharrik ez daukazu). Irakurleak aipua lehen kolpean identifika dezan, letra etzana erabil dezakezu.
- Diakritikoak erabili gabe: aipua hiru lerro baino gehiago dituen egiten da horrela. Aipua aparteko paragrafo moduan idatzi, eskuin eta ezker justifikazio estuagoz eta testu nagusiko letra baino tamaina txikiagoan.

 *Aipua garrantzitsua izan behar du. Edo autoritate argudioa delako —eta erakutsi nahi duzu nola esaten duen— edo bere literaltasunean kritikatu nahi den zerbait delako. Beste kasuetan ez sartu aipurik; erreferentzia ematea nahikoa da.* <sup>III</sup>

- (i) Aipua zerbait berri esan behar du. Garrantzizkoa da aipua dioena zuk testu nagusian esanda ez izatea. Dena dela, inoiz ez utzi argudioaren pisua aipuen esku.

 *Aipua testuaren edukiarekin eta erritmoarekin bat etortzeak asko errazten du horren irakurketa.* <sup>III</sup>

- (ii) Ez sartu aipurik erreferentziarik gabe. Aipua norena den eta non argitaratu duen argi izan behar du irakurleak. Hori gabe aipua ez du balio.
- (iii) Aipuen erreferentziak: testuan bertan erreferentzi bibliografikoak txertatzeko modu asko dago.

 *Kufin (1962: 57)  
(Kufin, 1962: 57)  
  
Kufin (1962, 57)  
(Kufin 1962, 57.)  
eta b.* <sup>III</sup>

Sinpleena, dena dela, *Harvard Sistema* edo *sistema sinplea* da.

 *(Popper 1974: 92)* <sup>III</sup>

Ikus dezakezunez, erreferentziak emateko *Harvard* sistemak irakurleak behar duen gutxieneko informazioa eskaintzen du (egilea, liburua eta orria). Honela ematen da:

- a. parentesia
- b. egilearen abizena
- c. tartea
- d. jatorrizko argitaratze-data
- e. bi puntu
- f. tartea
- g. orrialdea(k)
- h. parentesia



"(...) teoriak bi fasetan banatzen den prozesuan eratzten dira, Popperrek garbi esan bezala: 'fase dogmatiko bat, eta askotan beste bat kritikoa' (Popper 1974: 92). Eta fase dogmatikoan...". III

Batzuek abizenaren ondoren koma bat jartzen dute. Ez da beharrezkoa.



(Popper, 1974: 92) III

Erreferentzia oin-oharretan ematen baduzu, parentesiak ez dira beharrezkoak.



<sup>13</sup> Popper 1974: 92 III

Aipatutako egileak bi direnean "&" jar dezakezu bi abizenen artean. "Eta" jartzea ere egokia da.



(Popper & Lakatos 1974: 92)  
Popper eta Lakatos 1974: 92 III

Egile asko direnean berriz, egokiena lehenengo abizenaren atzean "et. al." jartzea da.



(Popper et. al. 1974: 92) III

Aipatutako egileak urte horretan liburu edo artikulua bat baino gehiago argitaratu badu, orduan argitaratze-urtearen atzean hizki bat jartzen da, alfabetoaren ordenaren arabera, irakurleak jakin dezan zein liburu edo artikuluz ari zaren.



(Popper 1974b: 92) III

Bestalde, aipatzen ari zaren egilearen hitzik sartu nahi ez baduzu, soilik erreferentzia eman nahi baduzu, orduan, autorea aipatzen duzun lehenengo aldian, parentesi artean haren zein testu edo pasartez ari zaren zehaztu behar duzu.




Izan ere, Popper-ek (1974: 92) zioen bezala, teoria zientifikoaren fase dogmatikoetan... III

Ez ahaztu, ondoren, idazlanaren amaieran bibliografia atala gehitu behar duzula aipatu dituzun liburu edo artikulua guztien erreferentzia osoak emateko.


#### 4. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Obra bat *lehenengo aldiz* testuan agertzen denean, haren erreferentzia osoa oin-ohar batean eman liteke, esate baterako:

 Kuhn, T. 1962: *Iraultza zientifikoaren egitura*, Donostia, Elburu Kultur Elkarte-Elkar, 1990: 57. <sup>III</sup>

Bestalde, obra berari eginiko harrezkeroko aipuetan modu hauek onar ditzakezu:


- (i) *op. cit.* (*opere citato*, latinez; "aipaturiko obran"): egilearen abizenaren atzetik jartzen da eta ondoren orrialdea(k) dator(z). Hori bai, soilik aldeztu aurretik egile beraren aipaturiko azken obra bera bada erabiltzen da.

 <sup>1</sup>Kuhn 1962: 57.  
<sup>2</sup>Popper 1934: 102.  
<sup>3</sup>Kuhn *op. cit.*: 104. <sup>III</sup>

Erreferentziak testu nagusian eman nahi badituzu, liburuaren eta orrialdeen erreferentzia parentesi artean sartuko duzu.


 Kuhn-ek (*op. cit.*: 92) <sup>III</sup>

- (ii) *ibid.* (*ibidem*, latinez; "toki berean"): hain zuzen *aurreko hurrengo* obra bera berriro aipatzen denean erabiltzen da (alegia, tartean beste libururik aipatu ez denean). Adibidez:


 <sup>1</sup>Kuhn 1962: 98  
<sup>2</sup>*Ibid.* 112 <sup>III</sup>

- (iii) *loc. cit.* (*loco citato*, latinez; "aldeztu aurretik aipaturiko tokian"): ez da komeni erabiltzea, nahasia baita. Soilik bere erabilera ulertzeko aurkezten dizugu. "Ibid." gisara erabil daiteke, edo "op. cit." modura (artikulu edo liburu baten kapituluari erreferentzia egiten zaionean edota iturri baten azken erreferentziaren orrialde bera aipatzen denean).


- (iv) h ("eta hurrengo"); hh ("eta hurrengoak"): aipatzen ari zaren ideia batek bi orrialde edo gehiago hartzen baditu, zenbaki gehiegi sar ez ditzazun, "h" edo "hh" erabil ditzakezu.

 <sup>1</sup>Kuhn 1962: 155h  
<sup>2</sup>Kuhn 1962: 155hh <sup>III</sup>

- (v) *passim* (latinez; "toki anitzetan"): atal, kapitulu edo testu batean zehar behin eta berriro agertzen den elementuaren aipua egiteko erabiltzen da.


 <sup>1</sup>Kuhn 1962: *passim*. <sup>III</sup>

- (vi) Erreferentzia konplexuak: iturri bat berez beste iturri batetik atera duzunean erabiltzen dira. Honako modu honetan ordenatzen da: jatorrizko iturriaren datu osoak eman —hau da, erreferentzia hori bilatu egin behar duzu (liburutegietan, sarean, etab.)— baita zuk erabilitako iturriarenak ere.


 <sup>1</sup>Quine 1953: 98 (*Sellars* 1982: 38, liburuan aipatuta). <sup>III</sup>

## 5. BIBLIOGRAFIA


Idazlanaren amaieran bibliografia jarri behar izaten da.

 Erreferentziak jartzeko modua pertsonala den arren, joera nagusia ahalik eta modurik soilena bilatzea da. III

Bibliografian jasotzen dira idazlanean lantzen edo aipatzen diren liburuen erreferentzia osoak, irakurleak jatorrizko testuetara heldu nahi badu bide hori errazteko. Bestalde, irakurle on batek beti begiratzen dio bibliografiari, autoreak dituen erreferentziak zeintzuk diren ikusteko eta erabiltzeko bibliografia lanaren kalitatearen seinale ere delako.


 Artikulu eta liburuetan bibliografia selektiboagoa etorri ohi da, testuan esplizituki aipatzen diren liburuak bakarrik sartzen baitira. Lan akademikoetan, berriz, idazlana egiteko erabili diren liburuen zerrenda osoa sartzea ez dago gaizki. III

Bibliografian liburuen zerrenda alfabetoaren arabera ordenatzen da, egilearen abizenaren arabera. Egile baten testu bat baino gehiago aipatzen baduzu, argitaratze-dataren arabera ordenatu, zaharretik berrienera. Bi testu urte berekoak badira, hizki ordenatuak jarri urtearen ondoan.

 Block, N. 1990a: *Mind and Cognition*, Oxford, Blackwell.  
Block, N. 1990b: *Inverted Earth*, Oxford, Blackwell. III

### (i) Liburuak

Liburuen erreferentziak emateko modu asko dago, baina guztiek gutxieneko informazioa eman behar dute: egilearen abizena eta iniciala, liburua argitaratu zen urtea (jatorrizkoa eta erabili den edizioarena), liburuaren izenburua, editoriala eta hiria.

 Informazio hori emateko modu bat aukeratu baduzu, hortik aurrerako liburuen erreferentzia modu berean egin. III

Guk honako modu hau aholkatzen dugu:



### EREDUA

Abizena, I., jatorrizko data: *Izenburua*, Argitaletxea nongoa den, Argitaletxea, erabiltako edizioaren urtea. III

Egilearen abizenaren atzetik, komaren ondotik, egile horren izena dator (hori osorik edo soilik lehenengo hizkia maiuskulaz idatzita). Ondoren, liburua lehenengoz noiz argitaratu zen (urtea) jartzen da (parentesi artean jartzen dute batzuek). Haren atzetik, bi punturen ondoren, liburuaren izenburua dator. Letra etzana erabiliz bereizten da izenburua dela. Eta, azkenik, zuk erabili duzun argitaraldiari buruzko datuak datoz, ordena honetan, komekin bereizita: argitaletxea non dagoen (herria), izena, eta argitaraldia noiz egin zen (urtea) (jatorrizko edizioa erabiltzen ari bazara ez dago urtea atzean errepikatu beharrik).

- Egileak bi badira, bi izenen artean koma jarri ohi da. "Eta" jartzea ere egokia da. Inizialaren ordean autoreen izena osorik jartzea erabaki baduzu, kasu horretan izenen artean puntu eta koma jarri.



Wake, D. B., Larson, A. 1987: *Multidimensional analysis*, Cambridge, Cambridge Univ. Press.  
 Wake, D. B. eta Larson, A. 1987: *Multidimensional analysis*, Cambridge, Cambridge Univ. Press. III

- Egile asko badira, “et. al.” formula erabiltzea hobesten da.



Wake, D. B. et. al. 1987: *Multidimensional analysis*, Cambridge, Cambridge Univ. Press. III

- Egilearen ordeztan, argitaratzailea bada, parentesi artean “(arg.)” jarri behar da izenaren atzetik. Bat baino gehiago badira, berriz, “(argk.)”.



Azurmendí, J. et. al. (argk.) 2004: *Filosofiako gida*, Bilbo, UEU. III

- Egile zehatzik ez balego, argitalpenaren organismo arduraduna litzateke alfabetikoki kontuan hartzeko hurrengoa; edo bestela izenburua.



Mexican Law Reform Commission, 2004: *The New Mexican Law for Education in Philosophy*, Monterrey, MGPS. III

- Itzulpenetan, itzulpenaren urtea erreferentziaren bukaeran jar dezakezu.



Montaigne, M. de 1580: *Entseñak I*, Bilbo, Klasikoak, 1992. III

## (ii) Artikuluak

Liburuen eta artikuluen artean badira desberdintasun txiki batzuk artikuluak aldizkarietan argitaratzen direlako eta haien erreferentziak ere eman behar direlako. Beraz, adi.

### EREDUA



Abizena, I., argitaratutako urtea: Artikuluaren izenburua, *Aldizkaria*, zenbakia: lehen orria  
 - azken orria. III



Byrne, A. 2003: *Color and Similarity*, *Philosophy and Phenomenological Research* 66: 641-65. III

- Artikuluaren izenburua diakritikoen artean edo batere gabe idatz dezakezu (gure adibideetan izenburuak hutsik ageri dira, praktikoagoa baita), baina inoiz ez letra etzanez.
- Letra etzanez idatzi behar dena argitalpenaren izena da (aldizkaria edo dena delakoa).
- Artikulua bilatzeko beharrezkoak diren datu guztiak eman behar dituzu: bolumena, zenbakia, data eta orrialdea(k).

## (iii) Hiztegiak, entziklopediak, egunkariak

- Argitalpen ofizialak direnean soilik instituzioaren izena idazten da.



Mexican Law Reform Commission 2004: *The New Mexican Law for Education in Philosophy*, Monterrey, MGPS. III

- Erreferentzia orokorreko liburuak direnean (entziklopediak, adibidez), soilik izenburuak agertu behar du.



*Oxford Encyclopedia of Philosophy*, 3. bol., 1924, s.v. *Common sense*.

(Oharra: s.v. = *sub voce, sub verbo* [satinez, "sarreran", "itemean", "ahotsean"]). III

- Izenpetu gabeko egunkarietako artikulua direnean, egunkariaren izenaz nahikoa izaten da (orrialdea ere sar dezakezu).



*Berria* 2003: *Kazetariak egungo filosofoak, editoriala, urriak 6, 2.* III

#### (iv) Liburuetan jasotako artikulua edo egile askotako liburuak

Egile batek idatzirik artikulua edo liburu baten kapitulu bati buruz ari bazara eta hori, era berean, egile desberdinetako argitalpen batean agertzen bada, izenburuaren atzetik "in" jarri eta ondoren eman edizioaren erreferentzia osoa.

#### EREDUA



Abizena, I. urtea: "Izenburua", in Argitaratzailearen izena, Argitaratzailearen abizena (arg.), *Liburuaren izena*, X. bol., Argitaletxea nongoa den (hiria), Argitaletxea. III

Ohar zaitez, halakoetan (eta halakoetan bakarrik), argitaratzaileen haste letrak abizenaren aurretik jartzen direla.



Howard, D. 1996: 'Relativity', in R. N. Giere (arg.), *Origins of Logical Empiricism*, XVI. bol., Minneapolis, University of Minnesota Press. III

Edo, bi argitaratzaile badira.



Howard, D. 1996: 'Relativity', in R. N. Giere, A. W. Richardson (argk.), *Origins of Logical Empiricism*, XVI. bol., Minneapolis, University of Minnesota Press. III

#### (v) Interneteko iturriak

Interneten aurkitutako materiala zitatzea askotan ez da erraza izaten. Horregatik, ahal duzunean behintzat, saiatu ondokoak jartzen:

- egilearen abizena + izena
- argitaratze-data (eguna + hila + urtea, baldin badatoz)
- dokumentuaren izenburua (artikulua, iruzkina, etab.)
- Interneten helbide osoa parentesi zuzenen artean: [ ]



Interneteko helbideak jartzeko modurik onena "Cut & paste" egitea da, hau da, koptatu helbidea eta ondoren erantsi parentesi zuzenen artean. III

- ahal baduzu, gunearen azken eguneratze-data (kontuz zaharkituta badago)



Barua, A. 2003: *Husserl, Heidegger and the Intentionality Question*, *Minerva - An Internet Journal of Philosophy*, 7. bol. [<http://www.ul.ie/~philos/vol7/husserl.html>] (2004ko apirilak 16). III

- f. aipatu nahi duzuna iturri elkarreragilea bada (adibidez, liburu baten egileak posta elektronikoz bidali dizun iruzkin bat), sistema arruntena hau da:



## EREDUA

E-mailaren egilea + egilearen helbide elektronikoa + gai orokorra + mezu mota eta hartzailearen izena + hartzailearen helbide elektronikoa + data. III



Sarrüugarte, Mikel. [sarrüimi@jaitel.eus]. "Sukalदारित्‍तaren filosofia". John Ansarri posta elektronikoz bidalitako mezu pribatua [johnansar@txopo.eus]. 2004ko urtarrilaren 12an. III

## 6. IZENBURUA ETA ATALETAKO GOIBURUAK

Irakurleak irakurriko duen lehenbiziko gauza izenburua da. Zenbaitek gaiarekin zerikusia duen hitz-sorta lausoa jartzen du, besterik gabe. Beste batzuek, ordea, lanarekin zerikusi zuzenik ez duen esaldi txundigarria bilatzen dute. Biak dira aukera okerrak. Izenburuak informatiboa izan behar du, esaldi batean jaso behar du idazlana zertaz ari den. Baina hori, noski, ez da nahikoa. Izenburuak erakargarria ere izan behar du, izenburu on baten helburua irakurtzeko gogoia piztea baita. Zerk pitz dezake itxaropen hori? Aipa ditzagun adibide batzuk:



- (1) Tales Miletokoaren "Lau osagaten" doktrina
- (2) Tales Miletokoaren "Lau osagaten" doktrinaren ondorioak alkimian
- (3) Kimika modernoa eta materiaren analisisa: Tales Miletokoaren "Lau osagaten" doktrinatik Taula Periodikoaren sailkapenera III

Izenburuak giltza-kontzeptuak jaso behar ditu. Lehenengo bi kasuetan informazio gutxi ematen diözu irakurleari; hirugarrenean, aldiz, irakurleak idazlanean aurkituko dituen termino-gakoak txertatuta daude eta horrela irakurleak idazlanaren nondik norakoa igar dezake. Hirugarren hori, ordea, luzeegia da lehen kolpean irakurtzeko. Zer egin?

Izenburua asmatzeko honako hau egin dezakezu:

- Sarrerako eta/edo ondorioetako esaldi garrantzitsuenak aukeratu.
- Esaldi horietako giltza-kontzeptuak, balio-judizioak, pertsonen izenak, joera filosofikoak, hipotesi garrantzitsuenak, etab. azpimarratu.
- Bi alde dituen izenburu bat sortu bertan zure tesi nagusia txertatuz.



- (4) Tales Miletokoa: Kimika modernoaren aitzindari III

Dena dela, izenburuak esaldi bakarra izan dezake, liburu askoren izenburuetan gertatu legez.



"Peacocks eta lehen pertsonaren kontzeptua". III

## 7. LABURPENA (ABSTRACT)

Irakasleak idazlanaren laburpena eska diezazuke (eskakizun hori guztiz arrunta da aldizkarietan). Laburpenean zure argumentuaren profila eta ondorio orokorrak zirimarratu behar dituzu. Gehienetan zehaztu egingo dizute laburpenaren luzerak zein izan behar duen, baina horrela ez balitz, 70-130 hitz tartean ibili (100 hitzekoa da ohikoena).

Laburpena azalaren eta lanaren artean kokatuko duzu. Idazlana amaitu eta gero idatziko duzu; sinopsi bat baita, ez proiektua. Eta, hain zuzen horregatik, orainaldian idatzi, ez geroaldian.

Laburpen baliagarri batek gutxienez hiru osagai orokor hauek ditu:

- a. ikertzeke duzun arazoaren aurkezpena
- b. gai gakoaren aurrerapena
- c. zure tesi nagusiaren formulazio laburra

Laburpenen diseinu asko daude, baina bat orokorra eta filosofian baliagarria, honako hau izan daiteke:

### TESTUINGURUA + ARAZOA + TESI NAGUSIA



*Idazlan honetan multzoen teoriaren paradoxa historikoak hartzen dira abiapuntutzat: Russell-en paradoxa, Cantor-ena eta Burali-Forti-rena (Testuingurua). Hiru paradoxak kontuan harturik, paradoxen ikuspegi erabat nahasia eta osagabea erakusten dute (Arazoa). Hortaz, paradoxak sinplifikatu eta depuratzeko, analisi semantiko bat aurkezten dugu, zeini esker sei paradoxa berri aurki daitezkeen. ■*

### 8. GILTZA-HITZAK (KEYWORDS)

Horrez gain, idazlanaz edo gaiaz hitz garrantzitsuenak (zazpi edo zortzi, asko jota) idazteko eskatuko dizute, gehienbat aldizkarietako artikuluetan. Orokorrenak eta zuretzat funtsezkoak direnak aukeratu. Haiek laburpenaren ondoren idatzi.



*Egia, paradoxa, egiaren teoria, kontzeptu kuantitatiboa. ■*

### 9. AURKIBIDEA

Hau ere irakurleak hasieran begiratuko dituen idazlanaren gauzen artean dago. Aurkibideak gida antzeko bat izan behar du, batez ere idazlanak izenen aurkibiderik eta aurkibide analitikorik ez duenean. Klaseko lanetan ere, beraz, komeni zaizu aurkibidea sartzea.

Formari dagokionez, idazlanean agertzen diren kapitulu, atal eta azpiatalen izenburu guztiek (hirugarren mailara arte edo) agertu behar dute, egitura hierarkikoari eutsiz eta orrialdeen zenbakia identifikatuz. Liburuaren aurreko aldean txertatzen da, izenburuaren ondoren normalki.

Badira ohiko beste bi aurkibide-mota: analitikoa eta izenena. Hauek soilik liburuetan agertzen dira eta hala izen propioak nola termino, kontzeptu, gai eta ideia gakoaren toki zehatza (orrialdea) aurkitzeko balio dute. Oraingoz, aurkibide horiek ez dituzu zure idazlanean jarri behar.

Dena dela, egiten dituzun irakurketak azkartzeko liburuetako aurkibide analitikoak eta izenenak oso erabilgarriak dira. Haiei jarraituta ez dago liburuak osorik irakurri beharrik. Lantzen ari zaren gaia edo autorearen zein diren jakinda, liburuako aurkibide analitikoan edo izenenean bilatu zein orritan agertzen diren aipatu hitzok, eta orrialde horiek irakurtearekin bakarrik askotan nahikoa izaten da bilatzen duzun informazioa eskuratzeko.

## 10. AZKEN UKITUAK

Bukatzeko, idazlana entregatzeko unea iritsi da. Entregatu aurretik, ordea, azken kontutxo batzuei erreparatu, badaezpada:

- (i) Garrantzitsua da ortografia ongi menderatzea unibertsitate-mailan. Arazoren bat baduzu, eskuliburu, hiztegi eta programa informatikoen laguntzaz gaindi dezakezu (Xuxen, sinonimoen hiztegiak, *Egunkariaren* estilo-liburua, etab.).



Euskararen zuzentzaile ortografikoa den *Xuxen II* izeneko programa: PC-Windows-eko *Office97* eta *Office2000* paketeetan dago eta, horrela, *Word*, *PowerPoint* eta *Excel* programetan ibil daiteke batere eragozpenik gabe.

[[www.sc.ehu.es/xuxen-e.htm](http://www.sc.ehu.es/xuxen-e.htm)]. III

- (ii) Adierazpena: diskurtso bat behar den bezala adierazteko ziurtasunik ez baduzu, hartu idazkia eta ozenki irakurri. Horrek nahikoa lagunduko dizu, batik bat erritmo falta eta terminologia arraroak identifikatzen. Azken errepasso honetan hiztegi eta gramatika-liburuak eskura izatea komeni da.
- (ii) Azala: arau berezirik ez badago ere, normalki honako hau jartzen da: lanaren izenburu osoa, irakaslearen izen-abizenak, ikasgaiaren izena, zure izen-abizenak, kontaktatzeko moduren bat (e-maila, telefonoa edo helbidea) eta emate-data. Azalaren diseinua pertsonala eta arriskatua ere izan daiteke.



### IZENBURUA

Irakaslea  
Ikasgaia  
Ikaslea  
(e-mail, telefonoa edo helbidea)  
Emate-data. III

Horrez gain, komeni zaizu idazlana formato txukunean ematea, batez ere koadernatuta, orrialdeen zenbakiak ongi jarrita eta azala ahalik eta erakargarriena. Dena den, eginkizun hori zure iritzi estetikoaren mende dago.

### BIBLIOGRAFIA

- Bares, M. 1988: *La búsqueda documental en el contexto telemático. Modalidades de automatización y utilización de bases de datos*, Madril, Díaz de Santos.
- Carreras Panchón, A. (bil.) 1994: *Guía práctica para la elaboración de un trabajo científico*, Bilbo, CITA.
- Clanchy, J. eta Ballard, B. 1997: *Cómo se hace un trabajo académico*, Zaragoza, Prensas Universitarias de Zaragoza.
- Cottrell, S. 2000: *The Study Skills Handbook*, Londres, Macmillan.
- Day, R. A. 1990: *Cómo escribir y publicar trabajos científicos*, Washington, OPS.
- Martín Vivaldi, G. 1982: *Del pensamiento a la palabra. Curso de redacción*, Madril, Paraninfo, 19. edizioa (gaurkotzen doa).
- Northedge, A. 1990: *The Good Study Guide*, Milton Keynes, The Open University.
- Redman, P. 1998: *Good Essay Writing*, Londres, Sage.